

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Segurtasunak ez luke askatasuna txikitu behar

MADDI TXINTXURRETA AGIRREGABIRIA > 11

BASERRIBERRI PROIEKTUA: Aroztegi tradizionala berreskuratzeko mugaz gaindiko ekimena > 12

2024ko irailaren 21a | XVIII. urtea • 894. zenbakia
0,50 euro

GAUR8


mila leiho zabalik
www.gaur8.info



GORANTZA, 1967AN FUTBOLEAN JOKATZERA AUSARTU ZIREN AITZINDARIAK

AURREKO ASTELEHENEAN OMENDU ZITUZTEN GALDAKAO DUELA 57 URTE EMAKUMEZKOEN FUTBOL TALDE BAT SORTU ZUTEN AITZINDARIAK. GORANTZA IZENA HARTU ZUEN ETA, OZTOPO GUZTIEN GAINETIK, EMAITZA BIKAINAK LORTU ZITUEN, EMAKUMEEN FUTBOLERAKO GAITASUNA ARGI ERAKUTSIZ. > 16

Jaizki FONTANEDA | FOKU



4



8



12



Kobaltoa, Kongo odolusten ari den «urre urdina» 04

Ikusmira: «Ez galdetu zenbat urte ditudan» 07

Trumpek ezin du genero arrakalaren mamua uxatu 08

Baserriberrri, aroztegi tradizionala berreskuratzeko mugaz gaindiko ekimena Urdazubin 12

Gorantza, Galdakaoko emakume futbolarien talde aitzindaria 16

Liesbeth Baelus eta Yorrick Troman biolinistak 22

Gastronomiaren antropologia: «Tasio», gaur 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



22



28

SINADURAK:

- 03 **Mikel Urdangarin Irastorza:** Udako merkatuak eta minoria arriskutsuak
- 10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Hormigoia kultura
- 11 **Maddi Txintxurreta Agirregabiria:** Segurtasunak ez luke askatasuna txikitu behar
- 20 **Beñat Gaztelumendi:** Fikzioa
- 21 **Iker Barandiaran:** Hamarkaden argi-ilunak
- 26 **Unai Gaztelumendi**
- 27 **Amagoia Mujika Telleria:** Ondo haserretzearen artea
- 27 **Koldo Sagasti:** Heriotza teknologiaren probalekua
- 30 **Miren Samaniego eta Elena Lazkano:** Pepper, nora begira gaude?



{ datorrena } **Mikel URDANGARIN IRASTORZA**

Udako merkatuak eta minoria arriskutsuak

Errealak aurrelari kolonbiarra fitxatu du”; “Osasunak akordioa egin du atezain espainiarrarekin”; “erdilari nigeriarrak Alves indartu du”... Gizonezkoen futboleko oraintxe itxiko da udako merkaturak, eta hiru hilabete luzetan halako lerroburuak irakurri ditugu nonahi.

Kolonbiarrak, espainiarrak, nigeriarrak... esku zabalik jaso dira. Harrerak ez ezik, txalo artean aurkezpen ofizialak egin zaizkie. Mediku probak ere bai, osasunez ondo dauden ziurtatzeko. Azaleko kolorearen araberaz ezberdintasunak egon badira ere, oro har ongi etorri instituzional eta soziala mundiala izan da.

Hala ere, ez dakit integratuko diren. Normalean ez dute horretarako borondate handirik izaten, besteongandik ondo hesitutako eta bereizitako luxuzko etxeetan hartzen baitute ostatu. Arauak errespetatuko dituzten edo ez ere ez da ziurra. Aurrekariak ez dira oso lasaigarriak: iruzur fiskalak... Kanpotik datozen enpresa multinazionalen beste horrenbeste.

“Kanpotarren” ustezko integrazio ezarekin eta lege iruzurrekin asaldatuta ei dauden hedabideak lasai antzean sumatzen dira, ordea. Susmagarria. Horientzat zein da arazoa, migrazioa edo pobrezia?

Udan izan da beste merkatu bat ere. Turistifikazioari lotutakoa, hain zuzen. Merkatu txikiak txikitu eta hiri osoak super-merkatu bilakatu dira. Badakizue, garrantzitsua da gure burua ondo “saltzea”. Eta lagunok, bai saldu ere! Aita Mari bezalako salbamendu ontziei trabak jartzen zitzaizkien bitartean, milaka turista etorri dira. Aipatutako hedabideak pozik, noski.

Hor ere izan dira “fitxaketak”: sukaldeetarako, zerbitzatzeko, garbitzeko... Harrerarik eta mediku azterketarik egin gabe, biharamunetik bertatik jo eta su hasi dira. Lan motaren eta baldintzen arabera, perfil ezberdinetakoak. Bizilagunak elkartean arabera,

«enplegu prekarizatuenetan langile migranteak, arrazializatuak, emakumeak eta gazteak ari dira, nagusiki». Denek ez dute prezio berdina, sobra ere. Hori gutxi ez, eta udako “denboraldia” amaitutakoan taldetik bota dituzte asko.

Aitzitik, eskuin muturreko “txiringitoak” diruz hornitzen dituzten enpresariak ez dira kexatu. Are, beraien manupean aritu dira migrante horietako asko. Baina orduan zergatik arbuiatzen dituzte publikoki? Ikusezin eginda beraien baldintza kaxkarrak ez direla-

«Auzia ez da migrazioa bai edo ez, baizik eta zein baldintzatan: parez pareko herritar gisa, elkarrekin herri bat eraikitzeko, edo mendeko bezala?»

ko ikusten. Beraz, beraientzat zein da arazoa, migranteak edo horiek herritar gisa eskubideen jabe izatea?

Agerikoa denez, migranteak esku zabalik onartzen dituzte, baldin eta aberatsak badira. Migrante po-break, berriz, publikoki gaitzetsi egiten dituzte, baina ezkutuan esplotatu egiten dituzte.

Horren aurrean, auzia ez da migrazioa bai edo ez, baizik eta zein baldintzatan: parez pareko herritar gisa, elkarrekin herri bat eraikitzeko, edo mendeko bezala, lanik prekarioenak egiteko? Egungo Konstituzio eta Atzerriartasun Lege supremazistekin edo euskaren ezagutza bermatuko duten hizkuntza-politika burujabeekin? Horri lotuta, auzia ez da mugak bai edo ez, baizik eta zein mugatuko dugun: gerra, larrialdi klimatiko edota gosetetik ihesi datozenak edo Hego globala ustiatu eta izurri horiek sortzen dituztenak?

Erantzuna begi bistakoa da. Miren Artetxek bertso batean zioen bezala, «ze arriskua ez da homosexuala, puta, beltza, arabiarra / aberatsena da arriskutsua den minoria bakarra». Ea ba fokua eta mugak non jarri asmatzen dugun. •

METALEN ERAUZKETA

Kobaltoa, Kongoko Errepublika Demokratikoa odolusten ari den «urre urdina»

Kobaltoa nonahi dago. Nahi duenak edozein tokitan ikusi dezake, seguruenik inguruan dauzkan bi metro karratuetatik itzulia egite hutsarekin. Ez dago meategi batean egon beharrik edo elementu kimiko metaliko hori eskuan eduki beharrik. Kobaltoa egungo iraultza teknologikoaren engranajearen funtsezko pieza da.

Momentuz litioak baino ospe gutxiago badauka ere, biak ala biak neba-arreba estrategikotzat jo daitezke, duten rola gailu elektronikoen kontsumoa bultzatu baitu, mekanismo industrial konplexu baten bidez baterien bizitza luzatzea lortuz.

Hori dela eta, azken belaunaldiko ordenagailu bat edo telefono mugikor bat dagoen tokian dago kobaltoa, baita telebistaren mandoetan edo, bereziki (etorkizunean etorriko denari dagokionez), auto elektrikoetan ere.

Hala ere, lehen begiradan positiboa dirudien arren, kontuan hartuz gero erregai fosilen bizidun berotegi efektua sortzen duten gasen ekoizpena ordezkatzeak duen garrantzia, benetan dituen onurak ez dira horrenbesteko.

Mugikortasun elektrikoak eta zenbait bateriaren kargatze azkarragoak lagungarri dira baliabide hidrokarburifero gutxiago kontsumitze aldera, baina, aldi berean, bereizketarik gabeko baliabide harrapakarritza, giza eskubideen urraketak, ustelkeria politikoa eta izatezko esklabotza areagotzen ditu hegoalde globalean.

Eskaintzaren eta eskariaren legegik kobaltoa gero eta preziatua-

INGURUMENA / Daniel GALVALIZI

Ordenagailuen eta mugikorren baterien iraunkortasuna hobetzea kobaltoari esker lortzen da, Kongon masiboki ateratzen ari diren metalari esker, alegia. Hitzaurrea egin dio Xavier Aldekoak kobaltoaren ustiapenaren inguruan ematen ari diren gehiegikeriak jasotzen dituen «Cobalto rojo» liburuari, eta GAUR8rekin solasean aritu da.

goa bilakatu dute nazioarteko merkatuetan eta, horrekin batera, nabarmen igo da hura ahalik eta merkeen eta errazen lortzeko desesperazioa, hau da, trabarik gabe kobaltoa lortzeko nahia. Bada toki bat kontraesan hauek guztiak batzen dituen: Kongoko Errepublika Demokratikoa.

ODOLUSTEN ARI DEN HERRIA

Kobaltoaren erauzketaren epizentroa Kongoko hego-ekialdeko eskualdea da, Lualaba probintzia, bereziki Kolwezi hiria inguratzen duen gunea. Joan den urtean argitaratutako «Cobalto rojo» (Capi-

tan Swing ed., 2023) liburuan, Siddhart Kara ikertzaile estatubatuarrek gordintasunez kontatzen du eremu horretan gertatzen ari den fenomeno.

«Petrolioia, ikatza eta gasa planetako toki guztietatik erauzten dituzte (...). Imajina dezagun une batez lur azpian dauden erregai fosilen hiru laurden 400 bider 100 kilometro karratuko lurrazal zati batetik ateratzen dituztela, eta lursail horretan petrolioaren ia erdia hiri bakar batean dagoela. (...) Hori izango litzateke, zalantzarik gabe, munduko hiririk garrantzitsuen»,

Behoko irudian, Xavier Aldekoa Kongon lanean. Egonaldi luzeak egin ditu bertan.

Alfons RODRIGUEZ | WIKIMEDIA



azaldu du, ezin argiago, Karak. «Bada, hori da zehazki egungo egoera», azpimarratu du; kobaltoarena eta, horrekin lotuta, Kolwezi eskualdearena.

Xavier Aldekoa idazle eta kazetariak, familia bizkaitarra badi ere Katalunian jaioa da, liburuaren (zeina «The New York Times»-en Best Sellerren zerrendan sartu duten) hitzaurrea idatzi dio liburuari, Saharaz hegoaldeko Afrikan, bereziki Kongoko Errepublika Demokratikoan, egin izan dituen egonaldi luzeek eman dioten eskarmentua baliatuz.

GAUR8rekin solasean, Aldekoak azaldu du zer dela-eta dioen bere testu zatian kobaltoa zer den laburtzeko soilik «bost hitz» aski direla: «*Estamos en manos de Dios*» (Jaungoikoaren eskuetan gaude). «Meatzariek sarritan errepikatzen zidaten esaldia da, tuneletan bizitza itogarria delako. Pairatzen dituzten inpunitatea eta ahanztura laburtzen ditu, inor ez baita kezkatzen haien eskubideez edo segurtasunaz».

Eskualdean une desberdinetan egon izan bada ere, Aldekoak ez du ikusi egoera asko aldatu denik: «Kongo askotarikoa da oso, badaude hiriak aurrera egin dutenak, baina meatzaritzak gune artisauak ez dira hor sartzen».

«Meategiak eskuz, zizelez edo palaz zulatuak daude eta meatzariek inolako babesik gabe egiten dute lan, sandaliekin edo ortozik, apurtutako kamiseteekin eta inolako aireztatzerik gabe, hainbat egunez edo, zenbaitetan, baita hainbat astez ere, mineral apur bat atera ahal izateko», adierazi du. «Gehienez dolar bat edo bi irabazten dituzte egunean. Pisuaren arabera irabazten dutenez, mineral beta bat aurkitzean ez irtetzen saiatzen dira, ahalik eta gehien induskatu ahal izateko, bertan lo

eginda eta hainbat egunerako janaria eramanda», azaldu du kazetariak.

Aldekoaren arabera, «esklabotzaren garaiko pasarte gogorrene-takoak» errepikatzen ari dira, «Leopoldo II.ren garaiko gertaerak jazotzen dira oraindik; lehen, munduaren ikuspegi arrazista zuen monarka bat aberasten zen, eta orain, enpresa teknologikoek ateratzen diote etekina».


Berak eta beste ikertzaile askok «urre urdina» deitzen diote kobaltoari, berriz kargatzeko baterietarako duen balio handia dela eta.

«Txina kobaltoaren ekoizpen guztia hartzen ari da, ez Kongon bakarrik, baita berriz kargatzeko baterien ekoizpenean ere, eremu horietan gelditu gabe ari da aurrera egiten», azaldu du. Horrek, ezinbestean, herritarren erreakzioa piztu du: «Meatzari guneetako herri xehean hazten ari da Txinaren aurkako ezinikusia, enpresari txinatarren gehiegikeriak pairatzen dituztelako. Bitartekari errusiarrak, kanadarrak eta europarrak ere badaude, baina txinatarrek dira gehienak».

Kongoko Errepublika Demokratikoaren historia «gehiagikeria eta espoliazio katea» da, gogorazi du. Arrazoi osoa dauka Aldekoak: kobreak eskala handiko erauzketarekin hasi zen mundu gerren garaian, gero diamanteak eta urrea, eta ondoren koltana (bidekontsoletarako funtsezko elementua).

«Betikotzen ari den gehiegikeria bat da. Horregatik sumatzen da amorrua han», azaldu du. «Kobaltoaren eremuetan ez dago ia Estatuaren presentziarik, ez dago osasun-zerbitzurik, ezta errepide asfaltaturik ere», eta ondorioz, «bertakoentzat, lapurtzen dieten pertsonak baino ez dira politikariak».

«Gobernantza txarra eta gehiegikeriak presente daude denbora guztian» eskualdean, eta herrita-



Litioa eta kobaltoa neba-arreba estrategikotzat jo daitezke, gailu elektronikoen kontsumoa bultzatu baitute, baterien iraupena luzatzea lortuz

Eskaria dela eta, kobaltoa gero eta preziatuagoa bilakatu da nazioartean eta, horrekin batera, nabarmen igo da hura ahalik eta merkeen eta errazen lortzeko desesperazioa

rrek erraz ondorioztatzen dute hobeto bizi ahal izango liratekeela: «Sentsazioa dute dituzten erreserbekin ondo bizi badaitezke ere, oso pobreak direla».

Amnistia Internazionala organismoak Kolwezi eskualdean «etxegabetze masiboak eta behartuak, etxeen legez kanpoko suntsiketa eta indarkeria fisikoa» salatu ditu, besteak beste, «milaka pertsonak euren etxeak, eskolak eta ospitaleak galdu baitituzte meategien hedapenaren ondorioz». Horregatik, kanpaina bat egin du Kinsasako gobernuari mezuak bidaltzeko, egoera honi amaiera emateko asmoz.

Kongoko Katanga probintzian kokatuta dagoen kobre eta kobalto meategi bat, goitik hartutako irudi batean. COORDENAÇÃO-GERAL DE OBSERVAÇÃO DA TERRA /INPE

«SUFRIMENDUAREN ERABILTZAILAK

«Bai, etxean ordenagailu eramangarri berri bat irekitzen dugunean edo gailu berri bat erabiltzean, funtsean, kongoarren odolaren eta sufrimenduaren erabiltzaile izaten ari gara», erantzun dio GAUR8ri Peter Fleming Rubio ingeniari kimiko eta metalurgikoak.

Meatzaritzaren negozioaren atzean mugitzen denaren jakitun, ez dio zalantzari tarterik uzten: «Ez, ez da batere normala meatzariek meazteetan lo egin eta hainbat egunez han bizi behar izatea, erabat legez kanpoko da. Eta kobazuloetan bada, toxikoak diren eta bertan harrapatuta geratzen diren hautsak eta gasak arnasten dituzte, eta horrek kalte larria eragiten dio osasunari».

Fleming Rubiok azaldu du teknikoki hobeto nola ulertu zergatik bihurtu den «urre urdin» hau hain garrantzitsua halako giza eskubideen urraketa bat posible izan dadin (Ipar Globaleko hedabide handien isiltasun txundigarriarekin): «Kobaltoa gero eta espazio txi-

kiagoetan energia biltegitratzeko ahalmen handiagoa duten bateria berriak garatzeko erabiltzen da, kobaltozko ioien portaerari esker, litioa bezalako beste elementu batzuekin batera, energia-dentsitatea errazten duen sinergia sortzen dute».

Azpimarratu du Kongoko Errepublika Demokratikoak planeta osoko kobaltoaren erdia baino gehiago biltzen duela eta ekoizle handiena dela, «Indonesian eta Australia atzetik baditu ere, askoz proportzio baxuagoetan, eta negozio horrek elektromugikortasun-bateriarako hazkunde-proiektzio bikainak dituela, hau da, gero eta joera handiagoa eta espontziala duen eskaria; kon-tuan hartu gabe orain enpresa asko ordezkotza gisa balio diezaioketen elementuak bilatzen ari direla, berreskuratzeko moduak ere aurkituz».

Etorkizunera begira, ingeniariak dioenez, espoliazio hori «prozesu geldiezina izango da, elektromugikortasunaren fenomeno geldiezina delako», baina baliteke hamar edo hogeit-

te barru Kongok hornitzaile nagusia izateari uztea, ordezkape-nak aurkitzeko ahaleginek arrakasta izanez gero: «Ikerketa asko egiten dira batera horiei eta horien birziklapenari bigarren bizitza bat emateko; hiri-meatzaritza deritzo».

Gaur egun, funtsean, Kolwezi-ko gehiegikerien konplize ez izateko kobaltoa kontsumitu nahi ez duenari «bere gailuei ahalik eta gehien irauaraztea besterik ez zaio geratzen, eta zentzurik gabe ez ordezte».

Zentzu berean mintzo da Aldekoa, tonu ezkorragoan, ordea: «Kongon soilik ez, mundu osoan kontzientzia hartu arte, egoerak bere horretan jarraituko duela iruditzen zait. Urtero gailuak berritzeko edo ez berritzeko erabakia hartzen dugu. Arduraz joka daiteke. Eskari altua dagoen bitartean, ez dago gauzak aldatzeko interesik, irabazi-marjinak izugarriak direlako».

Aldekoa eskualdean sarritan egon bada ere, ez du aldaketa handirik ikusi: «Kongo askotariko da, badaude hiriak aurrera egin dutenak, baina ez dira meatzaritza gune artisauak»

Amnistia Internazionalak Kolwezi eskualdean «etxegabetze masiboak eta behartuak, etxeen legez kanpoko suntsiketa eta indarkeria fisikoa» salatu ditu

ABERASTASUNA ETA TXIROTASUNA

1997an, Zaire berriz itzuli zen Kongo izatera, Errepublika Demokratikoa gehituta. «Erreka guztiak irensten dituen erreka» da antzinako izenaren jatorri etimologikoa, Mobutu diktadoreak 1971n inposatua, herrialdea zeharkatzen duen ur emari indartsuari erreferentzia eginez.

Afrikaren bihotzean kokatuta dago eta Aljeriaren ostean kontinentean dagoen herrialderik

handiena da azalerari dagokionez. Dituen 2,35 milioi kilometro karratuetan erraz kabituko liriteke 114 Euskal Herri, bere zazpi herrialdeekin. Herrialdearen biodibertsitateak eta orografiak baliabide naturaletan aberatsenatarikoa egiten dute mundu mailan, baita kulturaren ere: ia ehun milioi biztanleak (lingala, swahilia, tshiluba eta kikongoa), eta aldaera ugari, nahiz eta hizkuntza ofiziala frantsesa den, ondare kolonialaren adierazgarri da.


Ez da kontu berria Kongoko Errepublika Demokratikoa ustiapen basatiaren adibide dela: XIX. mendearen bigarren erdian hasi zen Belgikako Erreinuaren kolonizazioa, nahiz eta juridikoki lurrraren jabea Leopoldo II odoltsua zen. Monarka ezaguna egiten bertako herritarrenganako eskatu zuen trataera basatiagatik (berak inoiz ez zuen Kongo

zapaldu), eta marfila ustiatzearekin aberastu zen are gehiago.

Dominazioak eta bertakoen-tzako inolako onurarik gabeko baliabideen ustiapen basatiak 1960ra arte iraun zuen, orduan eskuratu baitzuten independentzia. Demokrazia makala ezartzeko mende amaierara arte itxaron behar izan zuten, Mobutu diktadoreak gogor eta Estatu Batuen babesarekin gobernatu baitzuen herrialdea.

Kongoko Errepublika Demokratikoaren lurrraren aberastasunak inbidia ematen du: landu daitezkeen 80 milioi hektarea (une honetan erdia baino ez da bideratzen ekoizpenera), urrea, ikatza eta koltana, eta hori gutxi balitz, Afrikako ur gezaren bolumenik handiena. Hala ere, biztanleriaren heren batek ez du elikadura ziurtatua eta zazpi milioi gosete arrisku larrian bizi dira, Nazio Batuen Erakundearen arabera.

Mineralak kudeatzeko fabrika bat Panorasion, Kongon.
Martin TUCHSCHERER | WIKIMEDIA





Naaman OMAR | EUROPA PRESS

IKUSMIRA

«EZ GALDETU ZENBAT URTE DITUDAN»

«Zenbat urte dituzu?». «Gerran bost urteko haurra ezin da gehiago bost urteko haur bat izan, 90 urte bizi izan balitu bezala da. Beraz, mesedez, ez galdetu zenbat urte ditudan». Bost urteko ume gazatar baten erantzuna da hori. Iazko urriaren 7az geroztik, Gazan eta Zisjordanian adin txikiko 11.001 ikasle hil ditu Israelek, eta beste 17.772 zauritu. Save the Childrenek aste honetan bertan salatu duenez, Zisjordanian egunean batez beste bost ume hil edo zauritu ditu Israelgo armadak. «Ekintza hauek ez dira gertakari isolatuak, Israelgo operazio militarren gorakadaren eta Palestinako haurren segurtasuna eta oinarrizko eskubideak sistematikoki urratzen ari diren indarraren erabileraren parte dira», nabarmendu du Jeremy Stonerrek, Ekialde Hurbileko gobernu kanpoko erakundeko zuzendari erregionalak. Haurtzaroarekin loturiko errutinak -eskolara joan, parkean jolastu, eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartu...- modu bortitzean eten ditu Israelek. Biziraupenean adituak bihurtu dira eta, begietako distira haren tokian, orain mina eta alerta egoera islatzen dute. Ainara LERTXUNDI



Aurreko astearte gaueko eztabaidaren ondoren, Taylor Swiftek Kamala Harris babesteko mezua idatzi zuen Instagramen. Era oso adierazgarrian, honela sinatu zuen post-a: “With love and hope, / Taylor Swift / Childless Cat Lady” (“Maitasunez eta itxaropenez, / Taylor Swift / Seme-alabarik gabeko katu andereñoa”).

Azken lerro horren bidez, James David Vanceri erantzun zion, presidenteordetzarako hautagai errepublikanoak esan baitzuen Alderdi Demokratikoa “seme-alabarik gabeko katu andereñoek” agintzen zutela. Bide batez, Donald Trump eta bere kideentzat gero eta kezkarriagoa den korapiloa azalarazi zuen: errepublikanoek arazo larria dute emakumeekin.

Hauteskundeetarako bi hilabete baino gutxiago falta di-

HARRIS VS TRUMP

Genero arrakala, Trumpek uxatu ezin duen mamua

📁 **AEB-ETAKO HAUTESKUNDEAK / GAUR8**

Kamala Harris demokraten hautagai izendatu ostean, inkestetan Trump eta Harrisen boto-emaielen arteko genero arrakala 18 puntura handitu da. Trump diskurtsoa egokitzeko ahaleginak egiten ari da, baina momentuz ez du asmatu. “Politico” hedabideak horren inguruko albiste zabala argitaratu du eta GAUR8n euskarara itzuli dugu.

ren honetan, inoiz baino handiagoa da boto-emaielen arteko genero arrakala. Trumpen hauteskunde arazo premiazkoenetakoa da, eta badirudi ez dela arazoari behar bezala heltzeko gai izaten ari.

ABC News/Ipsosen inkesta berri baten arabera, Konbentzio Demokratikaren ostean generoaren arteko arrakala handitu

egin da. Konbentzioaren aurretik, Harrisek +6 puntuko aldea lortu zuen emakumeen artean, eta +3koa gizonen artean. Bilkuraren ostean, egun, emakumeen artean %13 gehiagok egiten dute Harrisen alde (%54-41); gizonen artean, berriz, %5 gehiago dira Trumpen aldekoak (%51-46). Hortaz, guztira 18 puntukoa da genero arrakala.

Konbentzio aurreko egoeratik ez ezik, aurreko hauteskundeetatik ere handitu egin da arrakala. Izan ere, 2020ko hauteskundeetan 12koa izan zen, eta 2016an 11koa.

Gainera, bada Trumpentzat egoera are kezkarriagoa egiten duen beste datu bat: 1980tik hona egindako hauteskunde presidentzial guztietan emakume gehiagok bozkatu dute gizonen baino. Hortaz, joera hori mantentzen bada, nekez irabaziko du.

DISKURTSOA MOLDATZEKO SAIAKERA

Trump bera ere jakitun da, eta diskurtsoa moldatzen ari da azken aldian. Abuztu amaieran, bere gobernua “emakumeentzat eta haien ugalketa-eskubideentzat bikaina” izango dela adierazi zuen. Handik gutxira, emakumeekin arazoa egiazki Alderdi Demokratikak duela azpimarratu zuen. “Emakumeak behertzen eta baztertzen ari dira”, esan zion Trumpek Fox Newseko Mark Levini, irailean.

Duela gutxi Johnstownen egindako mitin batean, Trump hurbileko agertzen saiatu zen. “Norbaitek esan zuen emakumei ez zaiela Donald Trump gustatzen”, gaitz iritzi zuen. Horien aurrean, “hori gaizki dago. Maite nautela uste dut, maite ditut”, erantzun zuen.

Iragan astearteko eztabaidan arazoa biderkatu egingo zen beldur, bere taldeak eztabaida prestatzen laguntzeko eskatu zion Tulsi Gabbard kongresista demokratikoa ohiari —2020ko primarioetan Harrisekin eztabaidatu zuen—. Eztabaidaren bezperan horren inguruko aurreikuspenei buruz aritu zen kazetariarekin, eta Trumpen pentsamenduaren inguruko zenbait zertzelada eskaini zituen. “Trump presi-

Amerikako Estatu Batuetako zenbait herritar, Kamala Harrisen eta Donald Trumpen arteko eztabaida telebistaz jarraitzen.
Robert NICKELSBURG | GETTY IMAGES

dentea oso zentratuta dago bere arrakastaren historia komunikatzen eta emakume asko kezkatzen dituen auzien inguruko politikak bultzatzen”, esan zuen Gabbardek. “Trump presidenteak emakumeak errespetatzen ditu, eta ez du inongo beharrik sentitzen emakumeengana gizonengana zuzentzen ez den era berezitu batean zuzentzeko”, gaineratu zuen.

Trumpek abortuaren inguruan egindako aldaketek erakusten dute argien genero arrakalari buelta emateko saiakera. Gero eta boto-emakume gehiagok, batez ere emakumeek, abortua jotzen dute kanpainako gairik garrantzitsuentzat, eta Trump posizioa egokitzeko ahaleginak egiten ari da. Horren lekuko, 2024ko kanpaina abortuaren inguruko konpromisoa agertuz eta promesa lausoak eginenez hasi zuen.

Hitzetatik ekintzetara pasatzean, baina, zalantza eta kontraesankor agertu da. Floridan, haurdunaldiko seigarren astetik aurrera abortua debekatu zuten, eta azaroaren 5ean erreferenduma egingo dute hori bertan behera utzi edo ez erabakitzeko. Estatu horretako kidea denez, maginateak ere bozkatuko du, eta posizioa argitzerakoan zabuka ibili da. Aurrena, bere alderdikideek ezarritako debekua kentzearen alde egingo zuela esan zuen, sei asteko epea “motzegia” zelakoan. Ondoren, bere bozka erabakitzeko zutela argitu zuten bere kanpainakoek. Azkenik, debekua mantentzearen alde egingo duela iragarri zuen, “demokratik erradikalak direlako”. Edozein kasutan, zalantza horiek agerian utzi dute Ron DeSantis gobernadorearen erabakiak bere posizioa are gehiago ahuldu duela.

Egun emakumeen artean %13 gehiagok egiten dute Harrisen alde; gizonen artean, berriz, %5 gehiago dira Trumpen aldekoak. Guztira 18 puntukoa da genero arrakala

Emakumeen edo abortuaren inguruan diskurtsoa moldatzen saiatu bada ere, orain arte Trumpek ez du asmatu egoerari buelta ematen

Kamala Harris eta Donald Trump, hurrenez hurren, beraien jarraitzaileen aurrean mitin bana ematen.
Julia BEVERLY | GETTY IMAGES
Andrea RENAULT | Star Max | GC IMAGES

Beharbada horregatik, eztabaidan zehar ugalketa-eskubideei lotuta fokua aldatzen saiatu zen, *in vitro* ernalkuntzaren “lider” bezala aurkeztuz. Hala, familiak abiarazten lagun liezaieketen tratamenduetarako sarbidea galtzeaz kezkatuta dauden boto-emakumeak interperlatzen ahalegindu zen.

Alabaina, Trumpek emakume boto-emakumeak lortzeko duen ezintasuna ez da abortuaren inguruko jarrera murrerara mugatzen. Irailaren ha-

sieran New Yorkeko Klub Ekonomikoan haurren zaintzari buruz egindako galdera bati erantzunez, esaterako, erantzun nahasgarria eman zuen. Tartean, honakoa esan zuen: “Haurren zaintza haurren zaintza da. Gauza hori ezin da... Badakizu, gauza bat da eduki egin behar duzuna... Baina zenbaki horiek konparatzen badituzu mintzagai izaten ditudan beste zenbaki batzuekin, hala nola atzerriko nazioetan zergetara ohituta ez dauden baina azkar ohitu beharko direnen mailan jartzearekin”... Antza denez, berarentzat haurrak gauza eta zenbaki soilak dira.

Hauteskunde eguna gerturatu ahala, badirudi kanpaina une erabakigarria heldzen ari dela. Plan koherenterik gabe, orain arte Trumpek ez du asmatu genero arrakalari aurre egiten. Ikusteke dago hurrengo bi hilabeteetan ze estrategia garatuko dituen.





Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima5
Arkitektoa

Hormigoiaaren kultura


X. mendetik aurrera hormigoi armatua erakuntzetako egituretan erabiltzen hasi zen eta mundu zabalean hedatu da izurrite moduan.

Hormigoiak loratze garai bat bizi izan zuen, "brutalismo" estiloan bere gailurra joz, hormigoia eraikinaren elementu guztietan erabiltzen zenean. Material modernoak eskaintzen duen moldatzeko aukerak sormen ate luze bat zabaldu zuen eta gauza asko frogatu dira leku eta kultura desberdinetan, habe eta zutabeen euste-sareaz aparte. Markesinak, balkoiak, balkoi-loreontziak, itxitura panelak, dena hormigoiz egina.

Hormigoia tindatu daiteke, kurbatu daiteke, harrien osaketarekin harri txikien bukaera ehundura lortu daiteke, leundu eta talotxatu daiteke. Hormigoiarekin kalitatezko arkitektura bikaina eraiki da, behin hormigoi armatuaren eraikitze-teknika ikasita. Baina zenbat baserri ditugun hormigoiarekin eraldatuak eta zenbat sarraski bidean, egurrak pairatzen duen pipien erasoek sortutako desesperazioak jota eta hormigoiaaren aplikazioaren jakintzarik gabe egin izanagatik. Askorentzat eraikinaren irudi esanguratsua lortzen da, besteentzat hotzegia eta tristeegia, eguzkiaren islarik egin ez eta abstraktuegia gertatzen baita. Hormigoi armatua euste egituraren top zerrendan izan da urte askotan, azken garaiotan egurrezko egituraren gaineko aurrerapenek eta hormigoiaaren energia gastu eskandalagarriak joera aldaketa bat markatu duten arren.

Hormigoiaaren nagusitasunak gainontzeko teknikak ordezkatu izan ditu, eta horrez gain, egiturarik erresistenteena bezala postulatu izan da beste materialen aurrean. Indartsuena eta betirako material bat, mantentze-lanik gabekoa. Hiru txerrixoen kontakizunean, otsoak ez luke sekula hormigoizko etxetxea suntsituko eta honela eraiki dugu gure iruditerian, erresistentziak babesa ekartzen delako ezinbestean eta hormigoia egokiena dela horretarako. Beste arloetan gertatzen den bezalaxe, industriak kapitala sortu dezakeen produktu bat sortzen du, eta asko saldu behar duenez, sinesmen bat eraikitzen du produktuaren inguruan, eta arkitekturaren kasuan, irudi batekin lotzen du. Hormigoiaaren irudia indartsuenarena da, eta badakigu gure ekialdeko kulturaren indartsuaren irudiak zenbateko boterea duen.

Baina material guztiei gertatzen zaien bezala, hormigoiak zahartzaroa du, gaixotu daiteke, zikintzen da eta iraungitze data dauka. Material guztiekin bezalaxe, salbuespenik gabe, desberdintasunak desberdintasun. Mantentze-lana/zaintza materia guztien beharra da, bizitza duin bat izan nahi badute. Hormigoian pitzadurarik agertu ezean, eta armadura nahikoa hormigoi lodierarekin babestu ezean, herdoildu daiteke uraren presentziarekin, eta herdoiltzeak, aurrera joz gero, hormigoiaaren erresistentzia ezbaian jar lezake, erortzera iritsi arte. Hormigoiaaren kultura, hain justu, suntsiezina den material bat egon daitekeela eta egoera guztietarako eskuratu beharreko ezaugarria zurruntasuna dela sinistea da. Baina hainbat egoeratan, egitura malgu bat eratzea izan daiteke irauteko bide bakarra, ahuldade bat izan beharrean. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } **Maddi TXINTXURRETA AGIRREGABIRIA**

Segurtasunak ez luke askatasuna txikitu behar

Mugimendu feministak pentsatu eta egin duen bideari esker identifikatu eta adierazi dira indarkeria mota ugari, irakatsi du indarkeriok gurutatu ditzakeela modu desberdinetan gorputz jakin batek, testuinguru zehatz batean, okupatzen duen espazioaren arabera. Yaneli Gonzalesen hilketa salatzerakoan, adibidez, Emakume Migratu Feministek adierazi zuten erasotzailearena soilik ez, sistema kolonial, patriarkal eta arrazista oso baten biktima ere badela. Gisele Pelicoten kasuan, hainbat feministak bateratu dute beraien ahotsa oraindik hegemonikoa den narrati- ba patriarkalak arrakalatzeko: bortxaketak, hiltze matxistak gertatzen badira, hauek existitu daitezen prestatu den gizarte bat bizi dugulako da, eta ez bertan munstroak, gaixoak, zoroak, bizi direlako.

Horregatik, inoiz ez du funtzionatu sagar usteltzat ditugun horiek jendartetik erauzteak eta, hala ere, tematuta segitzen dugu ibaiari ur tantak lapurtzen, ea inoiz korrontea eteten dugun. Antipunitibismoari buruz entzutean, zenbait pertsona asaldatu egiten dira, esanez bizikidetzaz ez dela posible komunitatean erasotzailerik badago. Bada, ez al gara jada hori egiten ari? Ez al gara, egunero eta edonon, erasotzaileen bizi- kide? Zigorren eta segurtasunaren mitoak itsututa ardurak hartu beharrean arduradunak kanporatzen jarraitzen badugu, indarkeriok sortzen dituzten sistemak betikotzea besterik ez dugu lortuko.

Azken asteetako titularrak: Luhusoko festak, espazio publikoa, bortxaketa bat. Gisele Pelicotek bere senarrarekin, Dominique Pelicotekin, bizi zuen etxea, espazio pribatua, bortxaketa asko. Gonzalesek Bilbo- ko Santutxu auzoan bere bikotekidearekin bizi zuen

etxea, espazio pribatua, heriotza bat. Andreen gorputza publikoa denean, espazio pribatua eta publikoa trantsizio eremu soilak dira, beraz, segurtasuna mitoa izango da patriarkatua existitzen den bitartean.

Horrek esan nahi du beldurrez bizi behar dugula? Bada, ahal bada ez, estrategia emantzipatzaileak behar dira, eta ez hertsatzaileak. Nerea Barjolak "Microfísica sexista del poder. El caso Alcàsser y la construcción del terror sexual" liburuan azaltzen du nola terrore sexualaren errelatoak, beldurra zabaltzeak, zenbait egoera neutral arriskutsu gisa birdefinitzen

«Zigorren eta segurtasunaren mitoak itsututa ardurak hartu beharrean arduradunak kanporatzen jarraitzen badugu, indarkeriok sortzen dituzten sistemak betikotuko ditugu»

dituen, adibidez, gauez bakarrik ibiltzea, eta nola eragiten duen neska eta andreek, modu orokortuan –salbuespenekin–, portaera horiek bertan behera uztea.

Segurtasuna irabazteko ahaleginetan, beraz, askatasuna galtzen bukatzen dugu, baina batak ez luke izan beharko bestearen arerio: (sexu) harremanen testuinguruan, kasurako, lortu dugu gutxieneko adostasun bat eta printzipio gisa finkatu dugu onespina eta ezetza errespetatzeko betebeharra. Lorpen garrantzitsua da hori, dudarik gabe. Baina patriarkatuaz libratzen garen arte, baiezkoa askatasun osoz emateko aukerez ere hitz egin beharko genuke.

Ez ditugun erosi munstroak saldu nahi dizkiguten narratibak eta, indarkeriak bizi gaituzten bitartean, aitortu dezagun beldurrak desobeditzeko praktiken botere askatzailea, datorrena datorrela. •



Astlehenean hasiko dira Baserriberri proiektuko eskolak, Dantxarinean, 12 ikaslerekin. Eskualde hartako aroztegi tradizionala berreskuratzeke Peio Martikorena Fundazioak abian jarri duen mugaz gaindiko ekimena da; Nafarroa, EAE eta Ipar Euskal Herriko administrazioek sustatuko dute, eta Europak diruz lagundu. Irakasle, orientatzaile eta beste, jo eta su aritu dira lanean, euskarri pedagogikoa sortzen. Helmuga, behar handia duten eskualdeko gazteei ogibide bat erakustea, etorkizunean baserriak berritzeko ofizioan jarduteko aukera izan dezaten. Iraganean lanbide izan zelako, eta etorkizunean izatea nahi dutelako.

Dantxarineko errepide bazterrean dago Tomasenea baserria (Nafarroa), zaharkitua eta itsustua. Peio Martikorena

BASERRIBERRI PROIEKTUA

Aroztegi tradizionala berreskuratzeke mugaz gaindiko ekimena Dantxarinean

 **HEZKUNTZA** / Andoni URBISTONDO

Baserriberri proiektua Dantxarinean dago kokatua. Peio Martikorena Fundazioak bultzatuta, Nafarroako, Ipar Euskal Herriko eta EAeko administrazioen babesa dauka eta Europak diruz laguntzen du. Aroztegi tradizionalaren ofizioa, eskualdean garrantzitsua izan dena, berreskuratzeke ahalegina da; lehen izandakoa gero ere izan dadin.

Fundazioa da baserriaren jabea, eta Fundazioko kideek etzi baserri ondoan atondu duten eskola eta tailerrean ikusiko dituzte dozena bat ikasle, eskolak hartzen; luze prestatu eta landutako ekimena jarriko da martxan, azkenean. Baserriberri proiektua aspaldi ernatu zen norbaiten buruan; osatu eta idatzi egin

zuten ondoren, eta argia ikusiko du irailak 23 egun dituela.

Amaia Rekarte uztariztarra da ekimeneko koordinatzailea. Peio Martikorena Fundazioko kidea da eta Baserriberri ekimenaren helburuaz mintzatu zaigu: «Peio Martikorena eskualde honetako eragile eta ekintzailea izan zen. Hainbat enpresa sortu zituen, bizi-

rik zela, baita hainbat pertsona lagundu ere, bere ingurua, eskualdea eta bertako jendea biziki maite zituelako. Hainbat proiektu garatu ditu, kultur-gintza edo enpresa arlokoak izan. Bere familiak nahi izan du Peio abiatutako bide horri segida ematea: muga inguruko proiektuak garatzeko, jendea laguntzeko, baina betiere baserriko ikuspuntutik».

Baserria lantegi txiki baten moduan hartzen du Fundazioak, hainbat ofizio bere egiten dituen baserria. Peio Martikorena bera iturgintzan trebatu zela gogoratzen du Rekarte: «Arrantzalea ere izan zen itsasoan, eta etxera etorrita benta Iturri sortu zuen, baserrietako merkataritza saila garatuz eskala handiagoan. Baserrian denek zekiten aroztegi jarduna egiten, beste hainbat gauza egiten. Baserria lantegi txiki bat zen, ingurunean, paisaia txertatua, eta baserriaren ideia lutzapena da ekimena».

Aroztegi jarduna aipatu du Rekarte, aroztegi tradizionala baita Baserriberri proiektuko makulua. Ofizioa erakutsiko diete ikasleei, bi arlotan: teorikoa eta praktikoa. Ikasturteak Tomasenea baserriko teilatu berrikuntzan izango du helmuga, ikasleek egingo dute lan hori. Ikasturtea osatuta, mugaz gaindi, Ipar Euskal Herrian, Nafarroan eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoan homologatua den titulua eskuratuko dute ikasleek, eta ofizioa ikasi ondoren euren bidea egiteko aukera izango dute.

Astlehena gertu dago, baina ekimena aspaldi hasi zen garatzen, «hiru urte atzera bai», Rekarteren ahotan: «Alor askotan aritu gara eta ari gara lanean proiektua gauzatzeko: lau ikastetxetako irakasleak


Goiko irudian, Tomasenea baserria. Bertako teilatua konponduko dute Baserriberrin parte hartuko duten ikasleek.
Iñigo URIZ | FOKU

aroztegi tradizionalaren euskarri pedagogiko eta didaktikoa sortzen aritu dira; euskarri bateratua, hiru hizkuntzatan: gaztelania, frantsesa eta euskara». Oraino ez zegoen tamainako euskarririk, eta Compagnons Ipar Euskal Herriko formazio federazioarena baliatu dute, «ondoren irakasle bakoitzaren jakintzarekin aberasteko». Hego Euskal Herriko eskoletan ez da, dagoeneko, aroztegi tradizionalaren eskolarik irakasten, eta arotz hiztegiaren lanketa egiten saiatu dira, «ez delako emankorra».

HAINBAT ARLOTAKO LANGILEAK

Rekartek proiektua garatzen lagundu duten hainbat arloren lan isila gogorarazi nahi izan du: «Irakasleak bakarrik ez, orientatzaileek ere lan handia egin dute, ekimenaren nondik norakoak azaltzen, eta interesa eduki dezaketen ikasle gazteak erakartzen saiatzen. Izan Oiartzualdean, Oiartzunen egin zuten jardunaldi batekin, izan gazteak laguntzen dituen Ipar Euskal Herriko Mission Locale Pays Basque elkartearen, gazteak lanbide jakin batzuetara bideratuz, izan Nafarroako erakunde batzuetan, Doneztebeko enplegu bulegoan, adibidez, Bertizko Jauregian antolatutako zuten orientazio jardunaldiarekin».

Metodologia osatu ostean jo eta su aritu dira errekrutamentuan, ikasle hautaketa prozesuan. Komunikazio kanpaina handia egin da, eta etzi hasiko diren eskolei begira 12 ikasleko taldea osatu da. Taldea irail hasieran izan zen Tomasenea baserri ondoko eskolan, bisitan. Tailerra erakutsi zitzairen eta ariketa kolektibo bat egin zuten; sentsibilizazio kanpaina, elkar ezagutu zeza-



ten. Esan bezala, etzi hasiko dira eskolak hartzen.

Baserriberri ekimenak Albaola proiektuan izan du ispilua, nola jardun jakiteko. «Iruñeko Donibane auzoko Lanbide Heziketako ikasleek eta gurean eskolak emango dituen Iban de la Fuente irakas-

manez galdetuta: «Hiru lurraldetako administrazioak ezberdinak dira, bakoitza bere arauekin, baina metodo komun batekin jarduteko helburuarekin aritu gara hasieratik, eta lortu dugu. Idatzi da metodo hori, hiru hizkuntzetan, eta Europako Batasuneko POCTEFA eskualde arteko Kooperazio Programak ikuskatu eta ziurtatuko du metodoa bera eta ekimenaren bilakaera». POCTEFA funtsak iazko udazkenean eman zion baiezkua proiektuari.

Memoriaz zerrendatzen ditu parte hartu duten erakunde guztiak koordinatzaileak, lan erraza ez: «Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Hezkuntza Saila eta Nafarroako Lan Sarea, Ipar Euskal Herriko Mission Locale Pays Basque, Oarsoalde garapen agentzia, Angeluko Compagnons, Iruñeko Donibane, eta Donostiako Easo eta Irungo Bidasoa lanbide heziketa eskolak».

Lanerako giro on horren muinean interes kolektiboa omen da ardatza: «Denak helburu berarekin ari gara eta hori funtsezkoa da proiektuak aurrera egin dezan. Zergatik? Fundaziotik hala egiten saiatu garelako. Ekimenean parte hartzen ari diren beste egitura batzuk, Iruñeko Donibane edo Compagnons kasu, aritu izan dira dagoeneko POCTEFA funtseko beste proiektu batzuetan parte hartzen. Gu berriak gara, eta zerbait xumea baina praktikoa egin nahi izan dugu, ikusgarria. Diru publikoarekin ari gara lanean, eta hori hala den neurrian nahi dugu mugaz gaindiko errealitate bati erantzuna eman. Motibazioak anitzak dira, eta esperientzia pilotua da, berria, baina fruituak epe laburrean emango dituena. Elkarlana da

leak elkar ezagutzen dute, dagoeneko Albaola ekimenean elkarrekin aritu direlako. Proiektu honek, beraz, Albaola-n du hasiera», dio Rekartek.

Hilabete luzetako lan isil eta ilun horren fruitua jarri du baliolan Rekartek, administrazio ezberdinekin izandako harre-

fruitu horien guztien artean lehen».

Proiektua herritik etorri den zerbait dela dio lapurtarrak, herriko jendearekin egina, eta herriko jendeari zerbitzu bat emateko sortua: «Gure ingurune naturalean ohikoa da Berako biztanle batek Saran lan egitea, edo Hendaiako batek Irunen, eta eraikitzen ari garen sarea baliagarria izanen da etorkizunean beste esparru batzuetan ere».

TEILATUA BERRITZEA, HELMUGA

Eskolak ikasturte osoan emango dira, ekaina bitarte, Tomasenea baserri ondoko eskolan eta tailerrean. 12 ikasleak bertan biziko dira eta praktika arloa baserriko teilatua berritzea izanen da. Azken helmuga da hori, baina tartean, beste hainbat helburu gauzatuko dira: gazteen gizarteratzea, lanbide bat erakutsiz, eta etorkizunean bizitzan aurrera egiteko aukera bat izanen dutela erakustea. Nabarmentzeko modukoa da ikasturtea osatzen duten ikasleek bi titulazio jasoko dituztela, eta biak homologatuak izanen direla hiru administrazioetan. Rekarte: «Compagnons-i esker Frantzia ibilbide profesionala garatu ahal izango dute, eta Euskadin zein Nafarroan ere arotz moduan lan egiteko gaitasuna dutela erakusten duten agiri ofizialak emango zaizkie. Titulazioari esker Lanbide Heziketan euren ikasketak jarraitzeko aukera ere izanen dute ikasleek».

Ikasle batek plazaratu omen die dagoeneko bere interesa, etorkizunean baserrien berrikuntzan murgiltzeko: «Asteburuetan inguruko baserri eta bordak bisitatzeko aukerarik izanen ote duen galdetu digu». Beste ikasle batzuk kon-



tsumo apaleko etxeak eraikitzen saiatu nahi omen dute: «Ate anitz ireki daitezke», dio koordinatzaileak.

MUGAZ GAINDIKO EKIMEN SENDOA

Mugaz gaindiko ekimena izatea lorpen handia da Rekarterentzat, aitzindaria: «Artisautza tradizionalaren transmisioan interes handia zela nabaritu dugu Hezkuntza Saitetan, bai Nafarroan bai Euskadin; formazio eskaintza hobetzeko eta aberasteko borondatea bazela. Akaso izan daitezke curriculum bateratuak unibertsitateetan, baina lanbide heziketa arloan, saiakerak egin badira ere, ez dut uste gurearen moduko mugaz gaindiko ekimenik gauzatu denik. 12 lagunek

titulazio homologatu bat lortuko dute ikasturte bukaeran, lan merkatuan sartzeko prest izango dira, eta une horretan orientatzaileen laguntza jasoko dute, nondik jo erabakitzeko. Arlo praktikoari garrantzia eman diogu, eta ikasleek bi asteke bi praktika txanda

egiteko aukera izango dute urtarrilean eta maiatzean, Euskal Herri osoan. Compagnons-ek badu, esaterako, enpresari sare bat, Frantzia osoan. European hain garrantzitsua den gazteen mugikortasuna Euskal Herrian txertatzea da erronka».

Baserriberri ekimenaren aurrekontua publikoa da, eta Peio Martikorena Fundazioaren atarian ikus daiteke. 1,77 milioi erabiliko da, eta %65 Europako POCTEFA funtsak lagunduko du, FEDER plangintzaren bitartez, proiektua bukatu eta txosten guztiak eman ondoren. Proiektua 2024ko urtarrilean hasi zen eta 2026an bukatuko da, ikasturtea bukatu eta urtebe-

Eskolak ekainera arte emango dira, Tomasenea baserri ondoko eskolan eta tailerrean. 12 ikasleak bertan biziko dira eta praktika arloa baserriko teilatua berritzea izanen da

«Artisautza tradizionalaren transmisioan interes handia zela nabaritu dugu Hezkuntza Saitetan, bai Nafarroan bai Euskadin; formazio eskaintza hobetzeko borondatea bazela»



tera, ikasleen jarraipena egingo delako ikasturtea bukatu ondoren. «Jarraipena egin ondoren azken bilduma, balantzea, egin beharko dugu, ondo edo gaizki zer egin den aztertzeke».

Ekimen hau bukatu ostean etorkizunean zer egingen duen aztertu beharko du Peio Martikorena Fundazioak, «baina gure helburu nagusia mugaz gaindiko formazio polo edo gune bat sortzea litzateke». Hasiera batean ez dute errepikatuko martxan jartzera doan ikasturte bera: «Ez dago, gure helburuen artean aurtengo ikasturtea errepikatzea, horretarako beste finantzaketa bat behar genukeelako, baina ez dago erabat baztertuta».

IBAN DE LA FUENTE

BASERRIBERRI EKIMENENKO IRAKASLEA

«Inguruko baserriak zaharberritu nahi genituzke; gazteei bertan bizitzeko aukera eman»

Iban de la Fuente beasaindarra aroztegi tradizionalako eskolak emanen dituen irakasleetako bat da. Esku liburu bat osatu du, irakasteko aproposa.

Zer da zuretzat Baserriberri ekimena?

Euskal Herriak behar duen ekimena. Gure ondarea zaharberritzen ari gara, lanbide bat berreskuratzen. Euskal Herri hegoaldean aroztegi egitura ikasketak, marrazketa teknikoak, desagertu egin dira, lan hori egiten duten enpresa batzuk badaude ere. Lanbide hori berreskuratu nahi da. Egun egurrezko eraikuntzan ari diren langileen jakintza iturria ahoz ahokoa da, ez dago idatzizko euskarririk, ez da ikastetxeetan irakatsitako formazioa.

Bigarren helburu bat hiru hizkuntzatan hiztegi komuna sortzea litzateke. Frantzian hiztegia aberatsa da. Hego Euskal Herrian zurgintzan bada hiztegi jantzia, baina egurrezko egituretako aroztegi hitz asko falta dira, batez ere marrazketa teknikoari dagozkionak. Horiek bilatzen eta berreskuratzen saiatzen ari gara.

Zer irakatsiko duzue, zehazki?

Eskolak teorikoak izango dira, egur teknikari buruz, eta teorian ezagutzen dutena praktikekin gauzatuko da, tailerrean. Ondoren, Tomasenea baserriak praktika horiek errealitatera eramatea baimenduko digu, teiltatua berrituz.

Mugaz gaindiko proiektuetan eskarmentua duzu.

Bai. Mugaz gaindiko proiektuekin aritu naiz beti lanean. Albaola-rekin hasi nintzen, eskolak emateko eraikin



bateko egitura osatzen Pasaian. 27 metro luze zen, eta 11 altueraz. Orain Baserriberri ekimenean murgildu naiz. Albaola ekimenean egindakoa hemen errepikatzen saiatzea da nire pizgarri nagusia. Proiektu hau askoren arteko lehena izatea espero dugu. Baserriaren inguruko sektore guztiak lantzea da asmoa. Ez dugu egurra Frantzia iparraldetik ekarri nahi, bertatik baizik.

Baserriaren inguruan sortutako ekonomia zirkularra landu nahi genuke, baserria museoa edo erabilera anitzeko etxea izan baitaiteke. Inguruko baserriak zaharberritu nahi genituzke, eraitsi gabe, eta gure gazteei bertan bizitzeko aukera eman. Gure arbasoek egin zuten bezala. Euskal Herrian dena da berria, baina ondarea balioestea ere garrantzitsua da.

GORANTZA, BALOIARI OSTIKOKA EMAKUMEEI BIDEA IREKI ZIEN TALDEA

Nerea LAUZIRIKA

57 urte bete dira aurten emakumezkoen Gorantza Futbol Taldea sortu zutenetik eta, urteurren borobila ez bada ere, omenaldia antolatu diete taldea bezala galdakoztarrak diren Miren Muniozguren eta Silvia Tutorrek. Aitzindari izan ziren eta bidea zabaldu izana aitortu diete.

Jai giroan otu zitzaion emakume talde bati Gorantza Futbol Taldea sortzea, eta herriko jaietan omendu dituzte Galdakaoko emakumezkoen lehen futbol taldea osatu zuten jokalaria. Mende erdia eta zazpi urte gehiago igaro dira 1967an Galdakaoko emakume gazte talde batek Gorantza sortu zuenetik. Urteurren xelebrea omenaldi baterako, aspaldi egin beharreko zeregina gehiago ez atzeratzearen nahiak bultzatu duena.

Santa Barbara futbol zelaian egin zieten omenaldia, jokalaria ziren garaian bertan jokatzetik izan ez bazuten ere. Eguzkiñe Loroño, Pili Moreno, Blanqui Goiri, Emili Suarez, Amaia Garay, Eguzkiñe Garay, Rosario Etxabe, Maribel Saratxaga, Marieli Aurtenetxe, Maria Angeles Yarritu, Henar Yarritu, Maria Jesus Urgoiti, Belen Urgoiti, Virginia Gonzalez Ramos, Mari Carmen Alvarez eta Maria Pilar Torres jokalaria, Miguel Caballero entrenatzailea, eta Koldo Tutor eta Arturo Maza laguntzaileak omendu zituzten Miren Muniozgurenen ekimenez Silvia Tutorrekin batera antolatutako ekitaldian. Aurtenetxe eta Tutor GAUR8rekin aritu ziren omenaldiaz, noski, baina baita taldearen sorreraz, garai horretako emakumez-

koen futbolaren egoeraz eta gaur egungoaz ere.

Ostikoka hasi ziren baloiaren aurka, eta baita jarri zizkieten oztopoen aurka ere. Galdakaon bazegoen gizonzkoen futbol taldea, baina aparte antolatu zuten emakumeek haiena, gizonengandik laguntzarik batere ez baitzuten jaso: «Entrenatzeko ere ez ginen elkartzen, ez ziguten zelaia uzten». Urte asko joan dira dagoeneko, baina ondo gogoratzen du Aurtenetxek ez zizkietela ez instalazioak ez arropak utzi nahi izan.

1967ko Galdakaoko Jaietan bururatu zitzaion futbol talde bat osatu behar zutela, jaietan bertan partida bat jokatzeko. Auzoan betidanik mutilekin zein haien artean jokatzeko aritutako 13 eta 17 urte bitarteko emakume gazteak



Galdakaoko gizonezkoen taldeko jokalariek ez zuten haien kontra lehiatu nahi izan; baldintza berdinetan jokatzeko gizonek binaka elkarren hankak lotuta egon beharko luketela esan zieten Gorantzako jokalariei

«Jende asko etortzen zen gu ikustera eta animatzera, eta inoiz ez genuen entzun egokia ez zen ezer jokatzeko ari ginen bitartean», gogoan du Marieli Aurtenetxe Gorantzako jokalaria

ziren guztiak. Saiatu ziren partida bat jokatzeko bi talde osatzen, baina ez ziren nahikoa, eta mutilei haien kontra jokatzeko proposatu zieten.

Haiek, harropuz, erantzun zieten baldintza berdinetan jokatzeko ezinbestekoa izango zela mutilek binaka elkarren hanka bana lotuta jokatzeko,

emakumeek behar besteko maila emango zutenik sinistu gabe. «Pikutara bidali genituen», gogoratu du Aurtenetxek, erantzunak suminduta oraindik.

Horrela, haien kontra aritu nahiko zuten emakume talde baten bila hasi ziren. «Igandeetan Zornotzara, Durango eta alde horretarantz joatea gustatzen zitzaigun, eta Elorrioko neska batzuk ezagutzen genituen. Haiei proposatu genien lehen partida jokatzeko eta hona etorri ziren», horrela sortu zuten Gorantza taldea, eta beste talde batzuen aurka lehiatzen hasi ziren ordutik aurrera.

Izena ezin izan zioten aproposagoa jarri, lehiatu eta irabazi ere egin zutelako, Aurtenetxek gogoan duenez: «Baginen onak, bai». Tutorrek azaldu du

lehen partida 2-1 irabazi ziotela C. D. Elorriori. Halaber, 1969-1970 denboraldian Trofeo Hierro irabazi zuten eta urte horretan Gin Rives ginebra etxe ezagunak babestu zituen; mugarri garrantzitsua izan zen hura taldearentzat, irribarrez gogoratzen dutena. Horren hurrengo denboraldian Gorantza taldea izan zen Bizkaiko Trofeoaren irabazle.

Talde gisa onak ziren, baina badago jokalaria bat Tutorrek bereziki gogoratzen duena: «Akordatzen naiz Blanquik (Goiri) zer-nolako “paradoiak” egiten zituen, pasada bat zen». Aurtenetxek Amaia Garay goraiatu du, garai horretan prentsan jarri zioten ezizena gogoratuz: «Amaia gure Pelé zen». Izan zen, ordea, egun pentsaezina baldin bada ere, gutziz desegokia



Ezkerreko irudian, omenduak asteleheneko ekitaldian. Eskuineko argazkian, Gorantza sortu zuten garaiko irudia.

Jaiizki FONTANEDA | FOKU - GORANTZA FUTBOL TALDEA

zen titularren bat, hala nola «Una Pelé con minifalda» zioen bat.

AITZINDARI, BAITA GAUR EGUN ERE

Tutorrek azpimarratu du Gorantza sortu zutenean Athleticcek berak ere ez zuela emakumezkoen talderik, orain erreferente badira ere. Are gehiago, gaur egun C. D. Galdakaok ez dauka emakumezkoen talderik eta bertako jokalariai beste talde batzuetan aritzen dira. Agian horregatik dauka Aurtentzek hain argi gauzak ez direla horrenbeste aldatu, ez da batere baikorra, susmoa dauka ez ote duten okerrera ere egin.

Izan ere, zailtasunak zailtasun, harre-
ra beroa egin zieten herrian jokatzeko ari zirenean. Zelaira jende ugari gerturatzeko zen Gorantza taldeko jokalariai

animatzera, agian, Tutorrek uste duenez, frankismoa indarrean zen garai horretan «aire freskoa» izan zelako Gorantza herrian, ospatzeko aitzakia ematen zuena.

«Jende asko etortzen zen gu ikustera eta animatzera, eta inoiz ez genuen entzun egokia ez zen ezer jokatzeko ari ginen bitartean», gogoan du Aurtentzek. Hala ere, onartu du bazegoela jendea taldea sortu izanarekin guztiz ados ez zegoena, emakumeak futbolean ikustea gustuko ez zuena, eta gurasoei baten batek inoiz galdetu omen zien ea nola uzten zioten alabari mutilek bezala futbolean jokatzeko. «Beti dago baten bat, baina, orokorrean, arazo barik», laburbildu du.

Iruditzen zaio gaur egun egoera horbera egitetik urruti dagoela oraindik,

haien garaian «pentsaezinak» baitziren gaur egun emakumezko futbolariei harmailatik zein sare sozialetan botatzen dizkieten astakeriak, eta horrelako jarreraren aurrean tinko eustea ezinbestekoa dela ezin argiago dauka, horretarako deia egin nahi izan die emakumeei, bereziki gazteei.

BOST URTEKO AMETSA

1967an hasi eta 1972an bukatu zen Gorantza Futbol Taldearen ibilbidea. Izan ere, 18 urte bete eta lanera edo unibertsitatera hastean, taldekide gehienek futbola uzten zuten, dena uztartzeko denborarik aurkitu ezinda. Saiatzen ziren bakoitza bere ordezkoa bilatzen taldea utzi behar zutenean, eta horrela ibili ziren Gorantzaren Amurrioko emakume batzuk ere.

Blanqui Goiri, asteleheneko ekitaldian.
Jaiak FONTANEDA | FOKU



1967an hasi eta 1972an bukatu zen Gorantza Futbol Taldearen ibilbidea. Izan ere, 18 urte bete eta lanera edo unibertsitatera hastean, taldekide gehienek futbola uzten zuten, dena uztartzeko denborarik aurkitu ezinda.

«Bazelako garaia», hori da omenaldia orain egin izanaren aitzakia, Silvia Tutorren hitzetan. Horregatik, urteurren borobil bati itxaron gabe omendu dituzte, taldearen sorreratik 57 urte igaro direnean.

Galdakaoko gizonezkoen futbol taldeak zerabilen futbol zelaia erabili ezinda, Elexalden entrenatu behar izaten zuten, herriaren erdigunetik oinez gutxienez ordu erdira dagoen zelaian. Horrek denbora asko kentzen zien, oinez egiten baitzuten joan-etorria, eta askorentzat, Aurtenetxe tartean, ez zen bateagarria ikasketekin eta lanarekin. Horrela, hiru urtez ibili zen taldean. Gero, Maribel Saratzagak hartu zion lekukoa.

OMENALDI HUNKIGARRIA

Banan-banan deitu zituzten jokalaridenedenak astelehenean Galdakaoko Santa Barbara futbol zelaian egin zieten omenaldian. Pasillotxo zeharkatu zuten, ahal zuenak korrika, jokalariai

Omenaldia aspaldi ikusi gabeko kideak agurtzeko aukera paregabea izan zen askorentzat. Beheko irudian, ezkerrean, Amaia Garay, jokalaria zenean "Pelé" ezizenarekin ezagutzen zutena. Eskuinean Silvia Tutor eta Marieli Aurtenetxe, omenaldia hasi baino lehen.

Jaizki FONTANEDA | FOKU



renean bezala, eta izan zen bidea pre-sarik gabe egin nahi izan zuenik ere.

Gin Rivers babesle izan zutenean zeramatzateneko elastiko berdinak banatu zizkieten, baita Galdakaoko Udalararen eskutik prestatutako opari batzuk ere. Bertan izan zen Iñigo Hernando alkatea, eta jokalariei eskertu zien emakumeei bidea irekitzeko egin zuten lan nekaezina.

Ekitaldiaren ostean, Athleticen katede taldea Galdakaoko emakume futbolariak osatutako taldearen aurka lehiatu zen, omenduen zein bertaraturakoen gozamererako, Blanqui Goirik ohorezko satea egin ostean.

«Bazelako garaia», hori da omenaldia orain egin izanaren aitzakia, Tuto-

ren hitzetan. Horretan ere bereziak dira taldekideak, zenbaki borobil bati itxaron beharrean sorreraren 57. urteurrenean egin baitute ekitaldia. «Isilpean mantendu den zerbait izan da, jende gazteak ez dauka honen berri eta helduagoak diren beste askok ere ez, Gorantza zer zen ere ez», azaldu du antolatzaileak. Miren Muniozgurenek proposatu zion ideia, eta laguntza eskatu zionean onartu izanaz pozik agertu da, «oso polita» izan baita bidea.

Halaber, berriz ere elkartzeko aukera paregabea eman diete Muniozgurenak eta Tutorrek taldekideei, gazte denborak oroitzuz. Horrela, merezitako aitortza egin diete jokalariei: «Garrantzitsua izan zen Gorantzak egin zuena».





Beñat GAZTELUMENDI
Bertsolaria

Fikzioa

Ez gezurrik esan, umea». Amonaren ahoan geziak ziren kontsonanteak; «gezur» hitzaren «z» eta «r»-a batez ere. Kazkabarren gisa jausiko ziren gure belarri-zuloetan barna, eta gure neuronen arteko etorbide zabaletan oihartzun egingo zuten urte luzez. «Gezur», «gezur», «gezur» esango zigun etengabe gure barrunbeetatik. Eta Pinocho ezagutu aurreko gure irudimen eta entzumen jolastiek «gezur» eta «hezur» hitzak nahasiko zituzten, kuxa berean gorde, eta gezur bat esaten zuenaren zintzurrean arrain-hezur zorroztu bat iltzatuko zela pentsatuko genuen. Eta badakizue ez tarri barruko haragitan habia egindako arrain-hezurrekin zer gertatzen den: ogia irentsi arren, ura edan arren, hortxe segituko du, traba eginez, haragia zaurituz, zauria gaiztotuz. Eta urratu txiki bat zena puztu egingo da, zornez bete, eta hitz egiten dugun aldiro are traba handiagoa egingo digu; geroz eta pasabide estuagoa geratuko da egiak esateko. Eta itxi eta itxi, mutu geratuko gara azkenean. Hori dena esaten zigun amonak «ez gezurrik esan, umea» esaten zigunean.

Aitonak bere ohiko tonu jostariaz erantzungo zion sukaldeko mahaiaren beste aldetik: «Nik sekula ez dut gezurrik esan, baina egia ez direnak bai». Halaxe, zirkuitu labur bat sortuko zitzaigun garun barruko koadro elektrikoan: zer ote den gezurra izan ez arren egia ere ez den hori. Egia eta ge-

zurra, ona eta txarra, zuria eta beltza; mundua antolatzeke gure oinarritzko arkitektura hantxe, dantzan.

Zer den zer argi daukazula uste duzu, baina hara non albistegiekin Dominique Pelicot izeneko gizon bat aurkeztuko dizuten, hamar urtez bere emaztea drogatzen aritu zen gizona, drogatuta zegoen bitartean 50 gizonen bano gehiagok bortxa zezaten. Eta mundua asalatu egin da kolpera, fokua beste gizonengana mugitu denean: kaleko 50 gizon arrunt horiek, beren aisialdian drogatutako emakume bat bortxatu zutenak eta, ondoren, beren etxeetara eta beren bizitza gris eta arruntetara itzultzen zirenak. Edo gertatzen zena jakin arren, isilik egon

diren beste dozenaka horiek. Zure inguruko gizonak minduta sentitu dituzu, gizon horiek seinalatzeak, zeharka, beste guztiok ere seinalatzen gaituelako. Zure buruari galdetu diozu Dominique Pelicot zure kuadrillakoa, zure auzokoa edo zure lankidea balitz zure ezagunen artean zenbat geratuko ziren isilik eta zenbat ausartuko ziren salatu eta beren harreman sarearen zimenduak kolokan jartzera. Ez zara erantzutera ausartu.

Eta halaxe iritsi zara, aurten ere, alfonbra gorri honetara. Fikzioa behar duzu, egia izan gabe ere egia azaltzen lagun omen dezakeen zerbait; gertatu ez diren bestelako munduak. Itzali dira argiak. Eta ez dakizu mundua ulertu nahian, edo ihesean ari zaren. •



Fikzioa behar duzu, egia izan gabe ere egia azaltzen lagun omen dezakeen zerbait. Gorka RUBIO | FOKU

{ koaderno } Iker BARANDIARAN

Hamarkaden argi-ilunak

8 Oko hamarkadaren inguruko ekimene-
tan parte hartzen dut gustura. Sasoi ho-
rretan kokatzen dut niretzat hain esan-
guratsua den punkaren sorrera; eta,
gainera, gurean behintzat garai ilun be-
zain aberatsa izan zen, bestelako espre-
sabide sozial eta politikoen sorreran. 80koa nire haur-
tzaro eta gaztaroaren parte izan da eta hori hor
daramat, baina garai guztiek dituzte gauza onak eta
txarrak, eta nire ustez oraina bizi behar da, iraganari
duen balioa emanez. Hala, 80koaren mitifikazioari
aurre egin eta, bizi ez zutenek ezagutu eta hortik on-
dorioak –bakoitzak bereak– atera zitzaizten, Ez Donk
Amaitu oroimen ariketa egin genuen.

Baditut lagun batzuk, gazteagoak, 80ko hamarkada-
rekiko daukadan begirada luze honekiko interpelaten
nautenak txantxa eran, “Hil ezazu aita” esamoldea go-
gora ekarriz. Haiek errebin-
dikatzten dute 80ko hamar-
kada grisaren aldean
emankorragoa eta loretsua-
goa izan zela jarraian etorri-
tako 90eko hamarkada.

Eta azken hauei ezin arra-
zoi puntu bat ukatu; neuk
80koan jasotako bizipen
eta irakaspenetatik abiatu-
ta eta gaztaroa aurrera
zihoan heinean, gauzak al-
datzearen eta egitearen
beharrak kontzientziatu eta
gauza (askoz) gehiago egi-
teari ekin nion 90ekoan. Eta ez nik bakarrik; sunsi-
tzetik berria –gure gustukoa– zena eraikitzeari ekin
genion askok; eta beste batzuek zabalduzako bideak
–ez beti!– oinarri bihurtu ziren askotan egitura sen-
doago, iraunkorrago eta jasangarriagoak sortzeko.

80ko hamarkadan ilusionagarria baina prekarioa
zen ia guztia; diktadura azpitik irteten dena zegoen
eraikitzeko eta kasu gehienetan ez zen epe ertainera-
ko begirada nagusitzen, momentuko eztanda, purrus-
tada edo gozamina, eta listo!

Gerora, 90eko hamarkadan, aurreko hamarkadako
bat-bateko apar gorakadaren ostean, etorri zen gau-

zak egin bai, baina hobeto pentsatuta eta mamituta
egiteko joera. Eztrandatik harago bizitzak jarraipena
izango zuelakoan, begirada luzatu egin zen.

Musikaren esparruan antzekoa pasa zen. 80ko ha-
markadan nagusi zen punka, bortitza, gordina eta
bat-batekoa, inongo filtrorik gabekoa. Ez zuen axola
ondo jotzen jakiteak, ez zen ekipo handirik behar, ez
zitzaion soinuari garrantzirik ematen, jotzeko oso le-
ku gutxi zeuden eta edonolakoak ziren, sarrera or-
daintzea ez zen garrantzitsua, ezta musikarekin dirua
irabazi edo gastuak estaltzea ere, diskoak ateratzea
ere ez zen premiazkoa... Eta salbuespenak salbuespen,
garaiko eskaintzan musika estilo desberdin oso gutxi
zeuden aukeran.

XX. mendeko azken hamarkadan, baina, musikaren
alorra egonkortzeko eta kasu batzuetan profesionali-
zatzeko pauso garrantzitsuak eman ziren: Gaztetxeen

80koa nire haurtzaro eta gaztaroaren
parte izan da eta hori hor daramat, baina
garai guztiek dituzte gauza onak eta
txarrak, eta nire ustez oraina bizi behar da,
iraganari duen balioa emanez

sarea are gehiago handitu zen, kontzertuak egiteko
baliabideak dezente hobetu ziren, soinu, katxe, pro-
mozio, diskoetxe, kontzertu areto, grabazio estudio,
promotore, El Tubo aldizkari, lehiaketa eta bestela-
koen bitartez. Era berean, errazagoa zen diskoak eta
musika instrumentuak eskuratzea, jotzen ikastea...
Horrek guztiak ekarri zuen askoz kontzertu gehiago
egitea, musika estilo askotako talde ugari sortzea...
eta, hala, garai askoz loratuagoa izatea.

Bada, honi eta 90eko hamarkadako beste musika
kontu askori buruz mintzatu gara Eneko Barberenak
gidatutako Fukuyama 7 podcastean. •

«Mendekoegiak gara ezagutzen dugunarekiko»

Ederra izan zen irailaren 12an Yorrick Troman (Nafarroako Orkestra Sinfoniko ko lehen kontzertina) eta Liesbeth Baelus (Europako ganbera musikan erreferentea eta Bruselako Taurus laukoteko kidea) biolinistei eta Solveig bost urteko alabari Berroetako herrikideek egindako ongietorria, urtebete lehenago furgonetan munduari buelta emateko asmoz abiatu zireneko agur besta bezainbertze. «Horregatik bizi gara herri ttiki batean», diote, «oraindik giza eskalan eman daitezkeelako harremanak».

Bizileku duten Baztango herrian eman zuten Orbit Musicians proiektuko azken kontzertua. 30 herrialdetik goiti ezagutu eta ehun emanaldi baino gehiago eman dituzte urte honetan, guztiak musustruk. Vivaldi, Bach edota Mozart sekula aditu ez zituzten 9.000 haurrengana iritsi dira.

Nolako izan da itzulera?

Yorrick Troman: Ez dugu egoteko astirik izan. 12an bertan iritsi ginen eta biharamunean jada Parisera joan ginen, kontzertua genuelako. Astelehen Nafarroako Orkestra Sinfonikoan hasi nintzen.

Liesbeth Baelus: Bi egun egon gara etxean. Dena dugu kutxetan [irriz]. Nik asko bidaiatzen dut Bruselara, han baitu basea jotzen dudana laukoteak. Alaba, aldiz, eskolan dago berriz.

Y. T: Berak itzuli nahi zuen. Gustuko du eskola. Nik uste

LIESBETH BAELUS ETA YORRICK TROMAN

BIOLINISTAK

Anberesen (Belgika) eta Parisen (Estatu frantsesa) sortutako puntako biolinistak Berroetan bizi dira Solveig bost urteko alabarekin. Munduari bira eman berri diote Orbit Musicians proiektuarekin, musikaren bidez jendearekin konektatuz.

Maidier IANTZI GOIENETXE

errutina ongi datorkiola urte honen ondotik.

L. B: Mundu bira osoan hagitz kontent ibili da.

Nola sortu zen bidaia honen ideia?

Y. T: 12 urte nituenetik egin nahi nuen, bidaiarien literatura irakurtzearen ondorioz. Biziak aitzinera egin ahala alde batera utzi nuen karrerak eta lanak toki handia hartu zutelako. Gero, familia osatu genuen, eta ideari buelta bat emanez, familiaren egitasmo bihurtu genuen.

L. B: Elkartu ginen lehenengo aldian jada kontatu zenidan egun batean hil aurretik munduari buelta eman nahi zenioa [erran dio bikotekideari]. Eta nik buruan eduki dut hori. Baina bidaia egiteko nire arrazoiak bilatu behar nituen.

Y. T: Hala jaio zen Orbit Musicians proiektu musiko-soziala, hiruron proiektu gisa. Alabak ere anitz jo du biolina.

L. B: Guk gure arrazoiak genituen, baina alabarentzat bidaiak suposatu duena arras desberdina izan da. Bere mundu bira eta nirea ezberdina izan dira, nahiz eta elkarrekin egin.

Y. T: Bakoitza gauza ezberdinekin emozionatzen gara. Gure alaba gehien hunkitu zuena Japonia izan zen, denak iduri duelako jostailua han.

L. B: Furgonetako atea ireki eta lagun bila abiatzen zen beti. Indiako pasarte batez oroitzen naiz: kalean bizi zen gizon bat ikusi zuen txakurrarekin eta berarekin solasean hasi zen, ingelesez. Guri ez litzaiguke aterako, baina Solveig ikusita erran genuen: zergatik ez?

Nola prestatu zenuten bidaia?

Y. T: Erdia prestatu genuen, bertze erdia inprobisatu.

L. B: Nola bidaiatu nahi genuen erabaki genuen: furgoneta batekin, lo egiteko eta koinatzeko autonomia izateko.

Y. T: Ibilgailua ahalik eta xumeena izan zedin ere saiatu gara. Europarraren eta zuriaren etiketa jada bageneukan, eta txoke gehiago ekiditen ahalegindu gara.

L. B: Ahalik eta hesi gutxien izatea zen asmoa, eta horretan lagundu digu musikak.

Nola antolatzen zenituzten kontzertuak?

Y. T: Mila modu ezberdinetara. L. B: Joan aurretik enbaxadetara deitu genuen proiektua esplikatzeko eta GKE edo eskolekin harremanetan jartzeko. Musika klasikoa entzuteko aukerarik ez zuen jende xumearengana iritsi nahi genuen.

Haurrengana bereziki?

L. B: Abiatzerakoan ez genuen hori pentsatua, baina hagitz agudo ohartu ginen indar handiagoa zuela eurentzat joteak, etorkizuna baitira.

Y. T: Leku anitzetan neskatoek ez dute hezkuntzarako sarbiderik; horregatik uste dut ongi egin dugula modu librean joan eta haiei kontzertuak eskainita.

Nola erreazionatzen zuten?

L. B: Kontzientziaren eta kulturaren arabera. Batzuk lotsatiagoak ziren, bertzeek segituan besarkatzen gintuzten.

Y. T: Orokorrean, zenbat eta gehiago jabetu zein eksklusiboa zen, gehiago emozionatzen ziren. Thailandian sei egunez klaseak eman genizkion irakaslerik ez zuen orkestra gazte bati. Boli Kostan berdin, ikasi nahi zuten, baina ez zuten zeinek irakatsi. Musikaren bidez pertsonekin konektatu eta biziaren gogoetatzen

genuen. Trukean, ezagutza handia jaso dugu, nola sentitzen eta bizitzen duten bizitza hainbat kulturatan. Adibidez, toki ugaritan ama etxetik 5.000 kilometrotara doa lanera, umea amatxi edo izebarekin gelditzen da eta urtean behin ikusten du ama. Ezin dugu erran ama horrek ez duenik haurra maite.

L. B: Hainbat herrialdetan daude umezain filipinarrak. Baldintza ezin okerragoetan ari dira. Hong Kongen, adibidez, halako anitz zeuden. Haien lan baldintzak pixka bat hobetzen lagundu nahian, kontzertu bat eman genuen. Kanbodian, haur bat ezintasunen batekin jaiotzen bada, jendeak pentsatzen du zerbait txarra egin dutela aurreko bizitzetan. Hortaz, ez dute haiekin egon nahi eta familiak etxean gordetzen ditu, oheei lotuta. Ikaragarria da. Baina babesteko egiten dute. Maite dute haur hori eta ez dute bertzeek min egiterik nahi. Haiekin lan egiten duen erakunde batentzako kontzertu bat eman genuen, eta gozogintza ikastaro bat ere bai.

Zein mezu eman duzue?


Y. T: Beti kontatu dugu gure historia, eta azaldu dugu halako mundu bira bat egin daitekeela, ezinezkoa dirudiena agian ez dela ezinezkoa.

L. B: Adibide bizi bat eman dugu eskoletan. "Hemen gaude, posible da".

Zein zailtasun izan dituzue?

L. B: Zailena ateratzea da.

Y. T: Uretara saltatzea bezala da. Gogoan dut urtebeteko eszedentzia sinatu nuen eguna. Keinua egin ondotik barrenak mugitu zitzaizkidan, eta dena ezberdin kokatu zen berriz, horretarako: errealitate berriari



Argazkiak: Iñigo URIZ | FOKU

«Ahalik eta hesi gutxien izatea zen asmoa, eta horretan lagundu digu musikak. Musikaren bidez biziaren gogoetatu dugu»



aurre egiteko. Ez dakit zure kasuan nola izan zen, Liesbeth.

L. B: Nire laukoteari kontatu nion. Itzulerari nion beldur handiena. Musikaren munduan aktibo egon behar duzu eszenan, eta urtebeterako bazoaz zure lekua kolokan jartzen da.

Zein bide berri ireki dizkizue esperientzia honek?

Y. T: Proiektu bat sortuko dugu bidaiarekin zuzenki lotua. Zeinek behar du musika, eta nola? Urtebetez horri buruz gogoetatuta, talde bat sortzea erabaki dugu. Gu biok, eta hagitx lagunak ditugun bertze bide. Uste dugu publikoak musikaz harago doan konexio bat sumatu behar duela, zerbait arraz sanoa eta ederra. Primeran jotzen duten bi lagun dira. Batek musika barrokoa egiten du, biola "gambarra" jotzen

du, eta bertzea gitarrista flamenkoa da. Musika estiloen abaniko zabala izanen dugu, hortaz. Formatua mugitzeko erraza eta irisgarria izanen da, musika mahai baten inguruan te batekin solasean jarrita gerta daitekeenaren bertze elementu baten gisa ikusteko, zerbait hagitx erraza.

L. B: Izan ere, konturatu gara artista edo musikari izatearen esentzia komunikatzen jakitea dela. Urte honetan, hizkuntzarekin komunikatu ezin genuenez, aldiro bilatu behar genituen bideak publikoarengana iristeko. Normalki errazagoa da. Jendeak ezagutzen du musika mota, badaki non jarri, nola jokatu... Urte honetan zehar ez da hala izan.

Y. T: Beldur pixka bat badugu. Gure musika estiloa, klasikoa, ez baita herrikoia, biztanleria-

ren %1ek soilik entzuten du pixka bat. Gutxiegi da. Baina modu onean egiten baduzu edozein musika estilo izanen da ongi etorria. Horregatik, modua ari gara lantzen.

L. B: Vivaldi, Mozart, Bach jotzen hasi eta haurrak dantzan hasten ziren [barrez]. Guretzat ezohikoa da hori eta musikari profesional gisa zailagoa da inoiz biolinik ikusi ez duten umeen aitzinean jotzea. Sinesetza izaten zen erreakzioa.

Proiektu berriarekin ere bidaiatuko duzue?

Y. T: Estatu espainiarra, frantsesa eta Belgika izanen ditu kokaleku. Gitarrista Granadako da eta biola "gambarra" jotzen duena frantsesa.

L. B: Mundu osoan egin dugunak balioa du Europako parte honetan ere.

Anitz ez dira hurbiltzen ulertzen ez dutelakoan.

Y. T: Pertsona horrela sentitzen bada artistaren akatsa da.

L. B: Bai. Jotzen ari garen urte guztiotan hainbertze aditu dugu "ez dut ulertzen". Posible da! Salvadorreko kafe plantainetan sekula ez zuten biolinik ikusi, eta musika klasikoaz gozatu dute.

Urte honetan dohainik eman dituzue 104 kontzertu.

L. B: Traba guztiak kendu nahi genituen eta oztopo ekonomikoa da handienetako bat.

Y. T: Jende anitzek, tartean hurrek, musika klasikoko kontzertu bat ikusi dute eta, aldi berean, bere ibilgailuan bidaiatzen ari den familia atzeritar baten istorioa ezagutu dute, irudimena eta sormena landuz, adibiderik ezean nekeza baita zerbait posible izatea.

L. B: Diktaduretatik atera berri diren herrialdeetan izan garen nabaritu dugu asma dezaketen ametsik eroena polizia edo medikua izatea dela.

Y. T: Zenbat eta itxiagoa herrialdea, orduan eta murriztagoak perspektibak. Nahi nuke hemendik urte batzuetara norbaitek idatziko baligu "zuek ikusi eta gero beti gustatu izan zaidan zerbaitetan sartu naiz, eta orain honetan nabil".

Tokiko jendearekin bizi izan zarete, ezta?

Y. T: Bai. Doan jotzen genuen, baina janaria eta etxea eskaintzen ziguten trukean. Ia beti etxeko lorategian jartzen genuen furgoneta, eta lorategirik ez bazen etxea eskaintzen ziguten. Ibilgailua kontinente batetik bertzerara pasatzeko hila bete itxaron behar genuen, eta bitartean motxilekin ibili gara, irakasleen etxean edo ahal genuen lekuan lo egin.



Nola erabaki duzue ibilbidea?

L. B: Badira leku batzuk pasatzeko zailak, adibidez, gerra egoerengatik. Orduan, herri batzuk alde batera utzi eta bertze bide batzuk hartu behar izan ditugu.

Y. T: Denborak ere mugatu gaitu. Bagenekien irailerako itzuli behar genuela.

Eginen duzue bertze mundu birarik?

Aho batez: Bai!

«Zeinek behar du musika, eta nola? Urtebetez horri buruz hausnartuta, talde bat sortzea erabaki dugu. Gu biok, eta hagitz lagunak ditugun bertze bi kide»

Y. T: Bidaiatzea momentu pribilegiatua da ikasteko eta haize freskoa hartzeko.

L. B: Hainbertze estimulu daude! Une oro. Lehenbiziko hila beteetan horretara ohitu behar izan genuen. Orain dena digeritu behar dugu.

Nola topatu duzue mundua?

L. B: Urarekin eta plastikoarekin sekulako arazoa dagoela baieztatu dugu. Gainera, ikusi dugu toki guztietan sentitzen

duela jendeak segurtasun falta ezagutzen ez duenarekiko. Toki batean erraten ziguten bertze batera ez joateko, hagitz arriskutsua zela. Joaten ginen, eta gauza bera erraten ziguten gentozen tokiaz. Ezagutzen duguna etxekoa da, segurua, ongi sentitzen gara bertan. Thailandian, adibidez, goi mailako musika ikasi nahi dute, baina ez dute Europara etorri nahi arriskutsua iruditzen zaielako. Guk bidaia osoan ez dugu esperientzia arriskutsurik bizi izan.

Y. T: Ikusi dugun guztia laburtuz, erranen nuke mendekoeiak garelako ezagutzen dugunarekiko. Unibertsa da hori.

L. B: Ezagutzen duzunetik ateratzen zarenean gehiago ikasi eta maita dezakezu.

Y. T: Bidaiatuz, gero eta gehiago ikasi eta maitatzen dugu. Bihotzean zerbait askatu eta irekitzea bezala da.

Zer erran dizue jendeak esperientzia honen berri kontatzean? Eta berroetarrek?

Y. T: Batzuek inbidiaz edo miresmenez entzun gaituzte. Bertzeek, ordea, erokeriatzat hartu dute.

L. B: Berroetan irri anitz egin dute gurekin.

Y. T: Beti izan gara giri arra-roak, beti maitasun handiz.

L. B: Furgoneta ongi isolatu nahi genuen, eta isolatzaile hoherena artilea da. Berroetako ardien ilea jaso genuen, kalitate bikainekoa, idortzen jarri genuen plazan. Jendeak irriz zion: "Ze kiratsa izanen duen!". Ongi garbitu genuen eta sinestezina izan zen: zero-petik zazpi gradutan lo egin genuen Japonian eta ez genuen hotzik pasa, Berroetako ardiei esker! [algaraz]. Zein ongi babestu gintuzten! Eta ez zuen batere usaintzen.

GAUR8



ireki gure leihoa



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:



Ondo haserretzearen artea

Amagoia MUJIK
TELLERIA

Ez haserretu, ez kezkatu, ez egon triste... emozioak dominatzea nahiko samurra da parekoaren azalean tentetzen direnean. Norberaren azalean, baina, azkura gehixeago sortzen dute. Haserrea, adibidez, erupzioan lehertzen den sumendia da norbere gorputzean. Eztarria sokaz es-tutzen du, sabelean ukabila iltzatu, burura igoarazten du taupada zaratatsua. Haserrea sentsazio gogorra da, zamatsua. Poltsikoak harriz beteta ibiltzea bezala da, presentzia etengabea buruan, pentsamenduak lokazten dituen zera likatsu bat.

Mundu honetatik joatea erabaki zuen lagun batek eta asko haserretu nintzen, gogor haserretu nintzen. Nire haserrea-

ren lubakian, serio, kopetilun. «Erraza da haserretzea. Zailagoa da triste egotea», esan zidan ahots jakintsu batek. Ez nuen inoiz pentsatu haserretzea zaila edo erraza ote den. Baina bai, haserretzea ez da batere zaila.

Beharrezkoa omen da haserretzea. Hori diote psikologoek, mugak jartzeko balio duela. Desegokia, injustua, iraingarria... iruditu zaizunaren aurreko erreakzio beharrezkoa omen da.

Aristotelesek esan zuen: «Edonor haserretu daiteke, hori oso erraza da. Baina pertsona egokiarekin haserretzea, maila zehatzean, une egokian, helburu zuzenarekin eta modu egokian, hori, egia esan, ez da hain erraza». Hemen ere, neurrian omen gakoa.

«Zergatik haserretzen gara hainbeste?», irakurri dut kezka hor barna, sare sozialetan. Haserreak erresuma dira sare sozialak, anonimatoaren gozoan. Nago batzuk bizio hutsez haserretzen direla, droga horren mendeko bihurtuta. Ondokoak gaizki aparkatu duelako, udalak kalea itxi duelako konponketa batzuk egiteko, arrandegian ilara luzea dagoelako edota seme-alabari ez zaiolako tokirik egokitu musika-eskolan ordutegi jakinean. Beti, haserre.

Haserretzea beharrezkoa da, jendea eta jendartea bizirik, adi, tenk mantentzeko modua da. Baina haserretik hanka altxa eta hurrengo eskailerara igaro beharra dago; eraikitzeko, deseraikitzeko, aurrera segitzeko edo zerotik hasteko. Haserretutako herriarrek ezin herri bizigarririk eraiki. •

Heriotza-teknologiaren probalekua

Koldo SAGASTI

2024ko irailaren 17ko arratsaldea estatu-terrorismoaren historia-
ra pasako da, Israelgo erregimenak Libanon burutu zuen zibereraso hilgarriagatik. Urrunetik burututako oldarraldian gutxienez 12 lagun erail eta 3.000tik gora zauritu zituzten, horietatik 500 baino gehiago larriki. Azken triskantza hau berezi egin duena, ordea, ez da erasotuen kopurua; izan ere, hildako gehiagoko sarraskiak ere burutu ditu erregimen sionistak eskualdean, areago azken urtebetean. Oraingo honetan, baina, prozedura izan da ezohiko elementua. Israeldarrek milatik gora “beeper” gailu ezandarazi dituzte, batera eta modu indiskriminatuan, eramaile eta ingurukoan

artean txikizioa eragiteko. Argitu gabe dago nola. Litekeena da erasotzaileek ekoizpen prozesuaren hastapenetan esku hartu izana aparatuen barruan lehergailuak sartzeko. Aparailu horiek 80ko hamarkadan ohikoak ziren une oro aurkitzeko moduan izan behar ziren profesionalen artean, eta urte askotako beherakada baten ostean, berriro hasi omen dira erabiltzen, nonbait, eskuko telefonoetan instalatzen diren espioitza softwareak saihestu nahi dituzten artean. Analistek diote Hezbollahko ekintzaileek ere barneko komunikazio seguruetarako baliatzen zituztela, eta horixe izan da, hain zuzen, hilketa masiboa zuzitzeko erabili duten aitzakia. Nolanahi ere, erasoak,

arerioen artean ahalik eta baja gehien eragiteaz gain, munduari mezu bat bidaltzea zuen helburu. Gerra paradigma berri batean kokatzen da.

Anaia handia sega-potoan bertan dugu, areago, eguneroko erabilerako edozein elektrizitate-tresnatan, eta nekez aterako da onik ihes egin nahi diona. Paradigma beliko berri honetan Israel da aitzindaria, bere heriotza-teknologia nazioarteko merkatuetan hobekien saltzen dakiena, “*tested in combat*” (benetako gerra testuinguruan probatua) berme-zigiluarekin, eta Ekialde Hurbila da probalekua, gerora mundu osora zabalduko den teknologia hilgarri horren entsegu eremua, eta gure etorkizun hurbilaren iragarpena. •



Josu OZAITA Antropologoa

“Tasio”, gaur

Tasio filma ikusi ahal izango da gaur Donostiako zinemaldian. 40 urteren ostean, pelikulak ez du galdu bere dirdira. Ikatzaren prozesura hurbilpena izateaz gain, bizimodu baten aldarria da; hausnarketa. Nafarroako Lana eskualdeko bizimodua jasotzen da bertan, non etxe gehienak ikatzetik bizi ziren duela hamarkada batzuk. Hainbestearainokoa zen lotura, ezen mendiari lantegia deitzen baitzioten. Industrializazioarekin batera, ordea, aldaketak hasi ziren: migrazioak izan ziren hirira. Herri txikietatik hiriburura. Mendiko lantegitik industriara. Bizi aldaketa horren erresistentzia ordezkatzeko du “Tasio”-k. Berarentzat askatasuna zen bere bizimodua. Bizi baldintza erosoago batzuegatik ez zuen nahi saldu mendiarekin zuen bere harremana: ikatza egitea eta isilpeko ehiza.

Gaur egun ere, hainbat produktore, baserritar, artisau, arrantzale... “Tasio” dira. Beste sektore batzuetan aritzeko aukerak izanda ere, maite duten bizimoduetan bizi direlako, nahiz eta askotan larrialdiak igaro eta gizartearen aurrean beraien hautua justifikatzen aritu behar izan.

“TASIO”, GAUR

Duela 40 urte film honek ikatzaren eta bizimodu baten erorketa iragarri bazuen ere, oraindik gertatzen dira arrasto batzuk 2024. urtean.

“Tasio” pelikulan agertzen den frontoi mitikoa duen herrira joan gara, txondor baten prozesua bizitzera. Jose Mari Nieva (1958) izan dugu anfitrioi, eta maisu. Fabrikan 43 urtez aritu ostean, Bilaria herrian egiten du bizimodua gaur egun. Zerealak landatu, moxal eta behorrak mendian zaindu, eta udan, txondor batzuk egin; Tasiok maite zuen bizimodura buelta. Hala ere, salbuespena da, galtzeko zorian dagoen praktika. Egun 18 pertsonak egiten dute bizitza ber-

{ gastronomiaren antropologia }

tan, urtero populazioa hustuz doa, urtero txondorren kopurua jaisten den erritmo berean.

Bilorian arbasoen ohiturak dituzte oraindik: udazkenean “zorteak” egiten dira. Sutarako edo ikatza egiteko egurra jasotzeko zozketetan parte hartu dezakete herritarrek. Behin lurzatiak izendatuta, hartzaileak sail hori txukundu beharko du. Ondoren, txukunduta dagoenean, basozainak markatuko du zein zuhaitz bota ditzakeen. Horrekin egingo du ikatza, edota etxe-ko sua piztu negu luzean.

TXONDOR BATEN BIZITZA

Negua eta udaberria lehortzen eduki ostean, prest ditu pilan jarrita egurrak Jose Marik. Txondor honetan erabiliko dituen 4.000 kiloak 1.000 kilo ikatz bilakatuko dira egosi ondoren, astebete-ko prozesua bizitza. Txondorra egitea egurra kozinatzea da.

Artea edo zurbeltz egurra erabiliko da batik bat. Enbor lodienak erdian jarriko ditu, erdi paretik gora tximi-

nia moduko bat eginez, egur metaren kokotea izango dena. Hauek jarrita, adar finagoak ezarriko dira, banakabanaka, *tetris* bat bailitzan bakoitzari bere txokoa emanez, hutsune guztiak osatu eta gorputz bat osatzeko. Kontzentratuta dabil horretan, presarik gabe. Txondorrean dagoen egur bakoitza ukitu du; erabateko artisau lana da. Txarraka-txarraka, egur pila txikituz doa, eta egur meta handituz. Behin menditxo forma hartuta, hariak (*arrucas*) jartzen ari da txondorraren oinetan inguru guztian zehar: «Hauek izango dira txondorraren birrikak».

Adar fin eta hostoak mangerarekin ureztatu eta txondorraren azpialdean jartzen ditu buelta osoan. Ondoren, berak bildutako lastoaz estaliko du dena: egur mendi hau lasto meta bilakatu itxuran. Mangera hartu eta dena ureztatu du: ondo egosteko trukoa da. Pala hartu eta inguruan duen lur beltza, ehunka txondorretakoa, txondorrera botatzen du.



Nafarroako Bilaria herrian txondorrek egiten dituzte oraindik. Josu OZAITA



Jose Mari Nieva txondorra egiten. Alboko orrialdean, arreba dauka laguntzaile. Josu OZAITA



Lau ordu igaro dira dagoeneko: mendixka beltz bat dago nire begien aurrean. Egurtxo batzuk motozerrarekin moztu eta su eman die alboan, su txiki bat eginez. Eskailera txondorrean etzan, su txingarrak palan hartu eta gora igo da. Goiko zulutik, kokotetik, sua eman dio. Halako batean, tximinitatik kea ateratzen hasi da. Bizia hartu du txondorrek.

Oilo-ipurdia jarri zait, irribarrea azaleratu. Folklorizatutako zerbait, ia galduta dagoena, bizirik ikusten ari naiz zuzenean.

KEA, BEROA ETA BESTE

Plaza deitzen diete txondor eremuei, eta herrian hainbat plaza daude. Duela hamarkada batzuk, mendira joaten ziren txondorrek egitera. Bertan egiten zituzten 20.000 kiloko txondorrek, eta bat baino gehiago batera mantendu. Alboan, adarrekin egindako txabola bat bizitoki. Badira urte batzuk, ordea, menditik herrira jaitsi zituztela txondorrek. Etxe alboko plazetan egiten dituzte orduz gozotik, txondor basatiak etxekotuta. Hala, aukera dute erraz zaindu eta beste lanetan aritzeko. Egunean zehar, hainbat aldiz joaten dira bisitan, su hartu ez dezan. Egunero, goizeko 3.00etan jaiki, txondorrera joan, begiratu, betagarri lanak egin, eta lotara... Jaiki, eta lehendabiziko lana bertaratzea da. Betagarri lana egiten diren zuloak estaltzea da, egur puska eta aurreko txondorrean ondo egosi

gabeko sasi ikatz pusketekin. Ikazkin lana, batez ere, zaintza lana da.

Egun batzuetan, kez egongo da inguru, alboetan egiten zaizkion txuloetatik arnasa hartzen duela; ito gabe, eta erre gabe, egoste egokia bilatu behar da. Ke zakarra darie, gogorra, indarrarekin. Biriketara sartzen da, poroetatik gorputzean itsasten. Usaina zurekin eramango duzu, ezingo duzu kendu, eta atrapatuko zaitu. Haizeak kea mugitzen duela ikusten da, kontziente egiten du airearen eta suaren arteko jolas. Txondorraren taupada horietan, Jose Marik makila batekin martxan dauden 14 zuloetatik biri eragiten die, ia itzalita zegoena suspertzeko. Kearen irudimen horrek parrillako ikatzera eramaten zaitu.

Egun batzuk igarota, egunero goizeko hiruretan jaikita eta itzuli batzuk eginda, goitik behera egurra egosita, prest dagoela sentitu du Jose Marik. Astebete igaro da egur meta hari su eman zionetik. Orain ke urdina dario, eta hori eginda dagoenaren seinale dela esan dit.

Eskuarearekin suabe-suabe, gozotasunez, lasto guztia kentzen dio. Ondoren berriro pala hartu eta lur guztia botatzen dio. «Orain itzali egingo da, ito», esan dit, jada zulorik gabe arnasa har ez dezan. Ezpainak belztuta, betaurrekoak hauts beltzarekin ziprztinduta, ur mangera hartu eta erregadioaz blaitzen du. «Txistu beltza botako duzu egun osoan», esan diot. «Ez pentsa!

Hau sana da. Behin, osaba batek perretxiko toxiko bat jan zuen, eta ikatz hautsa urarekin nahastuta eman zioten», erantzun dit irribarre batekin.

Bi egun beranduago itzuli naiz: «Gaur ere goiztiar zabilta», esan dit, ordularia oraindik ez da goizeko 7.00etara iritsi. Izan ere, uda egun hauetako eguerdiko beroaldiak harrapatu aurretik, ohikoa da goizean goiz eta iluntzean lan egitea, tarteko orduak ekidinez.

Pikoa hartu eta menditxo deuseztatzen ari da, zati handienak menderatuz. Zirkulu bat egingo du jada ikatz bilakatu diren egur zati beltzekin, sardearen laguntzaz. Ondoren, arreba lagunduta, zakuak betetzen ditu. 50 zaku kontatu dituzte: goiz osoko lana, aste guztiko emaitza, baso lanak kontuan izan gabe. Zakuak sakabanatu eta pare bat egunez bertan utziko dituzte, badaezpada. Su puntu bat aski da dena sutzeko. Hala, zakuak sakabanatuta, eta denborari lana egiten utzita, segurua izango da uzta.

Txondor bakoitza desberdina da. Txondor bakoitza bakarra da. Ez daude bi berdin. Ezinezkoa!! Egur desberdina, eguraldi desberdina, egosaldi desberdina, zona desberdina, egite desberdina... Ederra da.

Txondorra egitea bizia ematea da zerbaiti. Egosi. Egin. Piztu, itzali. Eta ondoren ikatza nonbaitera joango da, berriro piztuko da, eta momentu polit bat sortuko du parrillaren bueltan.

OLENTZERO JOAN ZAIGU...

«Mendira lanera...», zioen abestiak. Baina jada Olenzero ez da zikina, garbitu dizkiote ikatzaren aurpegi markak. Ikatza desagerrarazi diote, egun batean txondorrek Bilorian itzaliko diren bezala, eta lasai lehortu ahalko dira garbitutako arropak herrian, ke usainik gabe. Zerbait faltako zaio, ordea. Edo, ez. Zerbait sortuko da agian: Tasioren izpiritua bizirik baitago; dena ez da oroitzapena.

Miren SAMANIEGO eta Elena LAZKANO

Donostiako UPV/EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlariak

Pepper, nora begira gaude?

arkitektura / geltokiak / teknologia

3 BEGIRADA:

Robotak, robotak eta robotak baino ez ditugu izango etorkizun laburrean, hori ari zaizkigu esaten komunikabide anitzen teknologia atal-

ak. Eta ez edonolako robotak, robot sozialak, robot lagunak badatoz gurekin gure etxeko egunerokotasuna konpartitzera. Errealitatea ala fikzioa, horrelako robotak gure erara portatzea da ikerlari eta garatzaileen erronka. Bada, ordea, ebatzi beharreko koska handi bat: ikusmen-arreta partekatua.

Begiradaren bitartez intereseko fokua zein dugun adierazteko gaitasuna daukagu gizakiok, begirada komunikazio iturri oso aberatsa da guretzat. Modu desberdinetan ematen da. Elkarrizketan gabiltzanean esaterako. Begiradaren bitartez informazio asko partekatzen dugu, baina ari edo taldean ari. Eta ez dugu guztiok berdín jokatzen. Nortasunak, izaerak, testuinguruak eta jatorri kulturak eragin dezakete bestearen begietara begiratzen dugunean, edota begiradaren maiztasun eta iraupenean.

Bestetik, inguruan dagoen objektuen batean arreta partekatzea ohikoa da ahozko komunikazioari laguntze-

ko. Adibidez, ibilgailu gorriari begirada luzatzea “hori da nire autoa” esaten dugunean. Beste batzuetan arreta partekatzen dugu horren konstantziaren beharrik gabe. Adibidez, etxekoekin telebistari begira gaudenean pantaila da guztien arreta fokua, baina informazio hori ez dugu esplizituki konpartitzen.

Baina, nola gauzatu hori robotekin, nola lortu robotek nora begira ari garen jakitea eta horren esanahia ulertzea? Guretzat automatikoa dena, robotak sintetikoki erreproduzitu beharko du nola edo hala. Kamera beharko du, ikusmira egokia lortzeko. Bideo zein irudi horiek prozesatu beharko dira. Fase desberdinak eskatzen ditu prozesu honek, guztietan lehena irudian inor dagoen erabakitzea. Baiezkoan:

Begiradaren noranzkoa atzeman behar da. Bi modutara egin daiteke hau: irudian aurpegia kokatu, begiak eta niniak lokalizatu eta bi horien angeluak aztertu. Errealitate birtualerako gailuetan erabiltzen da era hau, ez, ordea, robot sozialetan. Bigarrena, buruaren eta aurpegiaren marketatik (begiak, sudurra eta ahoa) abiatuz, begirada-bektorea lortzea datuetatik ikasiz, adibidez, sare sakonak erabiliz.

Estimazioa baino ez dugu lortzen, zehaztasuna txikiagoa da, beraz, baina orokorragoa da metodoa eta erabilerrazagoa.

Begiradaren noranzko horretan zer dagoen erabakitzea geratzen zaigu.

Gaur egun badira irudi batean dauden elementuak identifika ditzaketen tresnak, adibidez YOLO, baina ez dira inola ere %100 fidagarriak. Murphyreren esareei jarraituta, Jarri arraina begietan eta betaurrekoak izango dira sistemaren aburuz. Masailean jarriz gero, ordea, telefonoa.

Honaino, robotak aurrean duen pertsona horren foku bisualean dagoena identifika dezake, baina arreta partekatuan “ulermena” adierazi behar du eta, horretarako, bertara begiratu beharko du une batez bada ere. Honen guztiaren naturaltasunean egongo da komunikazioaren zantzua. Mezuaren hartzaileak ulertu al du hitzik gabeko mezua, robotak interpretatu al du berea? Ez da arazo makala, baina interes handiko ikerkuntza lerroa da, eta aplikazioak ere ugariak. Imajinatzen al duzu zure burua “ikus makusi”-ra jolasten Pepper robotarekin? Ikusi ondorengo bideoa:

<https://youtu.be/8WksyZ2wQnw> •



Ez da erraza roboten begirada kudeatzea. Guretzat automatikoa dena, robotak sintetikoki erreproduzitu behar du. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



GALLE ARGAZKIA. NAFARROAKO ARTXIBO NAGUSIA



EUSKARAREN EGUNA IRUÑEAN, 1930EAN

1930eko irailaren 27an Euskararen Eguna ospatu zen Iruñean, "Euskararen Adiskideak" elkarteak antolatuta. Goizeko lehen orduetatik, Iruñea eta Gasteizko txistulariak, Iruñea, Lizarra eta Etxarri Aranazko gaiteroekin batera, Nafarroako hiriburuko kale nagusietan zehar ibili ziren. Iruñeko eta Nafarroako beste herri batzuetako erraldoien konpartsek, hala nola Lizarra, Tafalla, Zangoza eta Tuterakoak, egun horretan antolatutako ekitaldietan parte hartu zuten, baita Cortes, Aldaz eta Leitzatik etorritako dantzariak ere. Jardunaldiari amaiera emateko, Olinpia antzokiak Saski Naski taldea hartu zuen. Hurrengo egunean, prentsak ospakizunaren eta izandako arrakastaren berri eman zuten, eta R.P. Damaso de Inza apaizak Aita Berrerosleen Elizan euskararen eguna zela-eta egindako mezan egindako sermoia nabarmendu zen, «... euzkeriko hizkuntza, gure antzinako tradizioen tresna nagusia...» goraiatu baitzuen.

EUSKAL
HERRIKO **GIDA**



+ gure herriak

Zure aisialdi-planak **egiten lagunduko** dizugu.



<https://ehgida.naizeus/>

